



ARGIA



IKASLEEN ZAINZA EMOZIONALA

Eskoletako korapilo latza

2.934 | 2025 / 10 / 12 | 4 €



**Gogoetak,
ezinegonak
eta irakaspenak**

30 | BERNEDOKO UDALEKUAK



**Intoxikazio kasuetan
esku hartzen duen
mitologoari elkarrizketa**

35 | ONDDOAK



**"Narrazioa ondo eramatea
izan da 'Karmele' filmaren
erronka handiena"**

46 | ASIER ALTUNA

Bizi Baratzea

Lurrari begiratzeko diogunon Orria



Kalean da 3. zenbakia:
udazkenekoa



Formatu berezia

Tolesturak
zabalduta poster
handi batera
helduko gara

**SENDABELARRAK
KOLOREKA posterra**

46 sendabelar ezagutuko ditugu, koloreka antolatuta. Garbiñe Larreak azaldua, Dani Blancoren argazkiek erakutsia eta Maitane Gartzandiak diseinatu.

Erreleboa

Laborari egin nahia
errazteko tresnak

Jenofa Berhokoirigoin



Lurrama 20. edizioa

Azaroaren 7tik 9ra Miarritzen



**Zer egin
udazkenean?**



**Ahuakatea
Nola lantzen da?**

Jakoba Errekondo

40 urteko ahuakateondoak Getarian
Libe Goenagari elkarrizketa

Baratzean / Jakoba Errekondo

Basoan / Iñaki Etxebeste

Haziekin / Kelo Arribas

Sendabelarrekin / Garbiñe Larrea



Onddoak

Fungi erreinua

Onddoekin gozatzen,
jan gabe ere

Estitxu Eizagirre

Batu mundua bizigarri eta eguneroko bizitza
gozagarri egiten dutenen komunitatera:

eginbizibaratzea.eus

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: SHU OTERO

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | ARKAITZ ZARRAGA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



30 | DUTXA MISTOAK UDALEKUETAN

Euskal Udalekueetan genero binarismoa desagerrarazteko eta biluztasuna normalizatzeko erabili dituzten dinamikak salatu dituzte zenbait gurasok. Prentsa eta alderdi politiko kontserbadoreek kriminalizazio kanpaina abiatu dute, morboa, transgorrotoa eta alarmismoa elikatuz. Horren aurrean, *Pikara Magazine*-k sakoneko analisia landu du adituekin, ezinegonak aitortuz, irakaspenak atera nahian.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Txinak energia berriztagarrien lidergoa hartu izanaren argi eta itzalak

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | JOSE MARI REKARTE

"Gure garaian inork ez zekien euskaraz eta orain, berriz, denek dakite"

M.A. Elustondo

24 | HEZKUNTZA

Ikasleen osasun emozionalak hartu du eskola

Mikel Garcia

35 | IONDDOAK | PEDRO ARRILLAGA

"Jaten ditugun onddo espezie gehienak gordinik toxikoak dira, adibidez, shiitakea"

Estitxu Eizagirre

46 | ZINEMA | ASIER ALTUNA

"Kontentzio ariketa izan da pelikula hau egitea"

Maria Ortega

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500066



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Egurra

Munduan barrena 1.100 langile baino gehiago dituen multinazionalen enpresarik 39 lagun kaleratu nahi dituzte, horrelako kasuetan ohiko bilakatu den hitz magikoaren izenean: "produktibitatea hobetzeko". Audioko egur fabrikako langileek greba mugagabearen bitartez eman diete erantzuna. Langile klaseak ere baduelako bidegabekeriari aurre egiteko hitz magikoren bat edo beste: elkartasuna eta bizipoza.

📍 Maderas de Llodio grebalariek badmintonean fabrikako sarreran. **AITOR ASPURU / AIARALDEA**

🔗 **AXIER LOPEZ**



MADERAS
DE LLODIO

Ongi etorri
Bienvenidos
Welcome

Sarreraren kontrola
Control de acceso
Access control

DIO
N
RTES!



Trumpen plana, palestinarrek eta gu

 AXIER LOPEZ

Urriaren 4an, Iruñeko manifestazio jendetsuan zein munduan barrena egindako manifestazio erraldoi askotan, ozen eta argi adierazi dute: bakea nahi bada, Israel suntsitu behar da. Zehatzago esanda, Israel izeneko proiektu politiko koloniala eta apartheid sistema. Genozidioak aurrera egin ahala, gordin, gupidagabe, nazioarteko erantzunaren mezua zorroztu eta hedatu egin da. Orain ez asko genozidio hitza erabiltzea urrunegi joatea zen batzuentzat, Euskal Herrian ere bizi izan dugu halakorik.

Bien bitartean, kontrara, munduan barrena palestinarren sarraskiaren sus-tatzaile eta babesle nagusiak proposatu duen 20 puntuko plana ongi etorria jasotzen ari da. Europako indar nagusiek, Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Europar Batasuna buru, bide-orria onartu eta "Trumpen bakerako grina" azpimarratu dute, lotsarik gabe. Baina norbaiti deigarriagoa egin dakioko nazioarteko eskuin muturraren buruak onduriko planak Palestinako erakunde politikoen artean momentuz jaso duen erantzuna. Hamas eta Jihad islamikoa "negoziatzeko prest" azaldu dira, eta "su-etena bermatzeko puntuak" onartu dituzte. Gazako erresistentzia armatuaren bi zutabe eta urriaren 7ko erasoen protagonista nagusiak izanda, bitxia suerta liteke erantzuna.

Aurkezpen egunean bertan hala mintzo zen Trump: "Plana onartu ezean, Bibi (Netanyahu), badakik, nire babeska daukaala egin behar duana egiteko". Urriaren 5ean, atzera ere mehatxu egin zion Hamasi zuzenean, plana onartu ezean "erabateko suntsipena" etorriko dela esanda. Giro oldarkor horretan eta bi urteko genozidioren ondorioak azalean izanik, asko neurtzen ari da hitzak Hamas. Berretsi egin du "akordio bat" lortzeko konpromisoa, Israelek Gazaren aurka egindako erasoa amaitzeko eta Israelekin presoak berehala trukatzeko.

Halere, zenbait buruzagik argiago egin dute hitz egunotan. Hamaseko Mahmud Mardawi-k publikoki adierazi du "planaren puntuak Israelen ikuspuntutik gertu" daudela. Jihad Islamikoaren idazkari nagusi Ziad al-Nakhalah-k esan du Trum-



PALESTINAREKIN ELKARTASUNA

pen planak bilatzen duela "Israelek gerran lortu ezin izan duena palestinarrei inposatzea".

Aginte Nazionalaren jarrerak, aldiz, ez du inor ezustean harrapatu. Hitz politekin jaso du plana "Gazako gerra amaitzeko" eta azpimarratu du "eskualdean bakea lortzeko" AEBekiko lankidetzat funtsezkoa dela. Edonola ere, palestinarren arteko batasun ezak, jakina, ez du batere laguntzen egoera hauetan. Haien tragediarik handienetakoa da eta aldi berean sionisten lorpenik onenetakoa, horretan erruz saiatu direlako sionistak. Berbarako, Israelek 2014ko gerra abiatu zuen Al-Fatah eta Hamasen artean adostasuna lortu eta bi hilabetera.

GENOZIDEN AURREAN AMORE?

Gazako genozidioaren babesle nagusia eta, batzuetan, ia bakarra izatea "Palestinako bakerako bidea" idatzi duena inteligentziaren aurkako iraina da. Klaseko matoiaren gisan, bere plana onartzen ez duen orori mehatxu eginda, argi utzi ditu bere asmoak. Gazarako Israelek duen proiektuaren hurrengo fasea da plana: erresistentzia oro zanpatzea. Israelek nazioartean inoiz izan duen isolamendu handienetakoa bizi duen garaian, planak fokua desbideratzen du 180 gradutan, apartheid sionista eta bere proiektu koloniala itzul daitezen nazioarteko komunitatean aurrez zuten status quo-ra. Ezta

hitz bat ere 20 puntuetan genozidak epaitzeaz, palestinarren bizitzarako nolabaitetako bermeei buruz. Ez dago erreparaziorik, ezta berriz ez errepikatzeko bermerik ere. Ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Nazio Batzuen Erakundea bera ere eskandalizatu da. 28 aditu eta kontalarik osatutako taldeak gogorarazi du AEB ez dela "bitartekari zintzoa", Israelekin lotura sakona duen alderdia baizik. "Proposamen honek praktika kolonialak gogorarazten ditu eta baztertu egin behar da", berretsi dute.

Palestinatik ere, jakina, badira planaren tranpa oso argi salatu duten taldeak. Berbarako, Giza Eskubideen aldeko Erakunde Palestinarren Kontseiluak ondokoa adierazi du: "AEBetako planaren helburua ez da apartheid erregimen kolonialista eta Israelen lege kanpoko okupazioa amaitzea, baizik eta horiek finkatzea eta normalizatzea. Israelen apartheid eta genozidio krimen sistematikoak saritzen ditu planak".

Sionistekin ondutako planean bakeaz mintzo dira, gerraren bidez inposatu dutena justifikatzeko eta gatazkaren sustaia alboratzeko: okupazioa. Horregatik, Palestinaren askapenaren aldeko borroka sionismoaren porrotarekin batera etorriko da, baina, baita zerbait handiagoa eta zailagoa denaren eskutik ere: AEBen inperialismoaren gainbehera. Eta horrek gu interpelatzen gaitu zuzenean. ●

BERRIKETA GUTXI

Trumpen bake-plana Bernedorako



IMANOL EPELDE

27zapata.eus

1. Bernedo terrorismorik gabeko eremu bat izango da, erradikalik gabea, eta ez da mehatxu bat izango bizilagunentzat.

2. Bi aldeak proposamenarekin ados badaude, gerra berehala bukatuko da. Patriarkatuaren indarrek adostutako lerrora egingo dute atzera, bahitutako duxak askapenerako prestatzeko.

3. Behin bahitutako duxak askatuta, Patriarkatuak aske utziko ditu biziarteko kartzela-zigorra ezarri zaien mundu osoko zientoka preso transak, baita atxilotu diren milaka eta milaka sexu eta genero disidenteak ere.

4. Horiek gauzatuta, Euskal Udalekuetako kideek bizikidetza baketsurako konpromisoa hartuko dute.

5. Behin-behineko trantsizioko gobernu batek edukiko du Bernedoko gobernabidea. Batzorde apolitiko eta teknokrata transfeminista bat arduratuko da egunerokoan zerbitzu publikoak kudeatzeaz. Batzorde hori bernedotar gaituek eta nazioarteko adituek osatuko dute, eta trantsiziorako nazioarteko organo berri batek gainbegiratu du. Donald Trump izango da haren burua.

6. Inor ez da behartua izango Bernedotik alde egitera, eta joaten direnak aske izango dira horretarako, baita itzultzeko ere. Geratzera adoretuko ditugu, eta Bernedo hobe bat eraikitzeke aukera emango diegu.

7. Transfeministek eta beste fakzio batzuek adostu dute Bernedoko Gobernuan rolik ez edukitzea.

8. Eskualdeko herritarrek berme bat emango dute ziurtatzeko Euskal Udalekuek eta haren fakzioek beren obligazioak betetzen dituztela eta Bernedo Berria ez dela mehatxu bat ez bizilagunentzat, ez herriarentzat.

9. Bernedo berreraikitzeke lanek aurrera egin ahal, eta Euskal Udalekuetako Aginteak bere erreforma programa leialki bete ahal, baliteke, azkenean, Bernedon autodeterminaziorako bide sinesgarri bat hasteko modua izatea.

10. AEBek elkarriketa bat abiaraziko dute Patriarkatu kapitalista inperialista supremazista zuriaren eta Euskal Udalekuetako begiraleen artean, bizikidetza baketsurako eta oparorako ortzi-muga politikoko bat adosteko. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Argiztapena



ULA IRURETAGOIENA

Gaua egiten denean, eraikin asko ipurtargi bilakatzen dira hormigoizko basoan. Egunez ezkutuan gorde duten barnealdea eszena pusketetan voyeur begibistara agertzen dira, argiztapern artifizialaren magia bitarteko. Gaueko auto zein oinezko paseoetan lurraldea eta eraikinak piztuta ikustera-koan, argi artifiziala ulertzeko eta erabiltzeko modu bat irakurri daiteke, helburu eta gabezia zehatzak azaltzen dituen.

Kutsadura luminikoak zeruen izar ikuspegia itzali egin du leku gehienetan. Berdin argizatzen dugu txalet ingurunea eta herrigunea, farolen arteko distantzia eta argi kalitatean pentsatu gabe. Gehiegizkoa ote den eztabaidaz aparte, argiaren balioa ohartaraztekoa da (energiaz gain). Behin herrien barna sartuta, denda asko itzartuta daude gauez, botere ekonomikoa eta salmenta aukeraren 24/7 mezua helaraziz, amatatu gabeko argien bidez. Leihotara begiratuz gero, oso ohikoa da etxeetako argiztapenak gabezia asko agertzea: fokuz jositako pasilloak, argi zuriko sukaldeak, argi-homogeneidadearekin egongela eta jantokia argizatzea, espazioaren zentroa bakarrik argizatzea. *Osea*: gehiegizkoa, sabai-fokuen demasia, argiaren tonu desoreka, espazioaren ezaugarrietara egokitzen ez den argia. Begiratu bestela filmetako eszena domestikoak; argi-itzalez josita daude eta goxoak dira.

Espazio bat iluminatzea gure ekin-tzak ikusteko ahalmena eskaintzea baino gehiago da. Gauez espazioak aldatu egiten dira eta jolas hori diseinatu egin behar da. Argiztapern on batekin itzal on bat planteatzen du, eta ideia batekin antolatzen du zer, non eta nola argiztatu behar den. Interruptoreekin gela baten argiztapern eszena desberdinak sortu ditzakegu egoera desberdinetarako, koka ditzagun giroa ematen duten argiak edo argi kantitatea erregulatzen duten sistemak.

Diseinatzaile luminikoen lana gutxi eza gutzen da, eta funtsezko lana egiten dute espazioen goxotasunean. Inbestitze-dirutzat baino, gastutzat hartu ohi da, espazio-kultura pobreaken adierazle. ●



LAB

Zentsura vs. memoria

URKO APAOLAZA AVILA

Bi egun baino ez ditu iraun zabalik LAB sindikatuaren historia barnebiltzen duen *1974tik etorkizunera, LAB zabaltzen* erakusketak, Tuterako Rua zentro zibikoan. Erakusketa paratu dute Erriberan 40 urte egin dituela ospatzeko sindikatu abertzaleak antolatutako egitarau barruan. Alejandro Toquero UPNko alkateak berehala ixteko agindu du, ETako presoei aipamena egiten dieten panelak daudela eta "terrorismoa goraipatu" dezaketen edukiak jasotzen dituela argudiatuta –bitartean, aste berean, Tuterako udal plenoak Gazako genozidioa salatzeke mozio bat atzera bota du, UPNren eta PPren kontrako botoekin–.

"Adierazpen eskubidetik harago, baieztatu orduko [erakusketaren] eduki batzuk jendearentzat mingarriak izan zitezkeela udal titulartasuna duen zentro batean, zalantzarik gabe ixtea agindu dugu", dio alkatearen oharrak. Zentsuratzaileen garaia badatoz, Toquerok berak sare sozialetan gehitutako mezu batean aitorturik: "*Censuramos y clausuramos*" (Zentsuratzen dugu eta ixten dugu). Jarrera horrek ez luke inor harritu behar, bere alderdiak erakusketa kentzea eskatu baitzuen otsailean Nafarroako Parlamentuan inauguratu zutenean.

Baina hori ez da izan azkenaldian Euskal Herrian memoriari lotuta bizi izan dugun zentsura kasu bakarra. Txiki eta Otaegiri buruz Iratzar eta Olosa Dorrea fundazioek antolatutako *1975. Dena jokoan zegoen urtea* erakusketa areto publiko batean jartzea debekatu zuen Zarauzko Udalak (EAJ) irailean, errelato "partziala" eta "ideologizatua" egiten duelako, bere esanetan.

Memoria uste baino arma boteretsuagoa da, eta iraganean galdutako borroka ideologikoak orainean irabazteko baliatu nahi du botereak. Emilio Majuelo historialariak –tuterarra eta LAB sindikatuaren historia ikertu izan duena, besteak beste–, duela urte batzuk Antonio Rivera historialariarekin izandako eztabaida batean ohartarazi zuen *dictum* bat dagoela, ukatzen duena azken hamarkadetan gatazka politikorik ere egon denik, eta horrekin norabide bakarreko ikerketak eta errelatoak justifikatu nahi direla. Horrela, errelato autoritario horren bidez, 1975eko fusilatuen irudiak kendu arazten dituzte toki batzuetatik, Zarauzko Santa Barbara menditik kasu, eta beste batzuetan 1975eko borrokoen omenezko kondekorazioak, eskulturak eta kaleen izenak mantentzen dira. Adibidez, José Solís Ruiz falangista eta frankismoko *movimiento*-aren idazkari nagusi izandakoak –Txiki eta Otaegi fusilatzea agindu zuen ministroen kontseiluan egon zen–, sorterrian, Corrobako Cabran, monumentu bat eta etorbide printzipalena dauzka bere izenean, zentsuratzailearik handiena kabitzeke moduko arku eta guzti. ●

500

bat dira Israelgo armadak urriaren 2an atxilotu zituen aktibistak: Global Sumud Flotilla nazioarteko ekimeneko partaideak. Palestinara laguntza humanitarioa eraman asmoz abiatu ziren Gazara, aldarri garbiarekin: Palestinako herriaren aurkako genozidioa geldiaraztea.



4

euskaldunek hartu zuten parte Flotillan. Astelehenean kanporatu zituzten Israeletik. Aske utzi zituzten lehen ekintzaileek salatu zutenez, Israelek besteak beste kolpeak, umiliazioak, loaren galaraztea edo janaria eta ura ukatu zizkieten atxilo zituen bitartean.



Milaka

herritar atera dira kalera Euskal Herriko herri askotan Global Sumud Flotillako partaideen bahiketa salatzeko eta agintariei eta gobernuei Israelekin harreman guztiak apur ditzaten eskatzeko. Munduan barrena ere ehunka mila pertsona atera dira protestetara.

“Ez dugu Munduko Koparik nahi, osasuna eta hezkuntza hobea nahi ditugu”

Osasun eta hezkuntza publikoa indartzearen aldeko protestek Marokoko kaleak hartu dituzte, herrialdera helduko den Munduko Futbol Kopa eta Afrikako Futbol Koparen aurrean. Lehenengo egunetan, Poliziarekin liskarrak izan ziren, eta urriaren 2an hiru hildako baieztatu zituzten.

2025-10-02



“ORAINDIK ETXE KALERATZEEN AGINDUEK SEGITZEN DUTE, ETA EGUN, ADINGABEEKIN SEI FAMILIA ARI DIRA KALEAN BIZIRAUTEN”

ANDONI BURGETE, SALHAKETA NAFARROA

Iruñean etxebizitzaren inguruko topaketak egiten ari zirela baliatu zuen hainbat kolektibok, protesta egiteko.

2025-09-29

“Nire zikloa amaitu da. Alkate gisa hamar urteko muga jarri nion nire buruari”

ENEKO GOIA

Donostiako alkateak azaldu zuen urriaren 16an egongo den politika orokorreko udal plenoa izango dela azkena alkate moduan, dimisia emango baitu.

2025-11-02



Kulturaren sinboloak



DIANA FRANCO

Hasiera batean, memea ez nuen behar bezala ulertu, hitz hori entzuterakoan gustu txarreko irudiak zetozkidan burura, ustez grazia egin behar lidaketenak. Memeka zebilen mundu guztia nire inguruan, mugikor bidez irudi horiek igorritz, nire ustetan hutsalke-riak zabaltzeko besterik balio ez zutenak, ideia garrantzitsuak beharrean. Wikipediaren arabera, memea da gizabanakoen artean transmititu daitekeen gutxienezko kultur informazioa neurtzen duen unitatea. Aspaldikoa da hitza, 1976an Richard Dawkins ikertzaileak sortua, *Gen Berekoia* liburuan.

Denborarekin, memeak aldatu egin zirela iruditu zitzaidan, burutsuagoak bilakatu zirela, edo beharbada, hizkuntza horretara egokitu nintzen. Memeak partekatzen hasi nintzen neu ere. Memeari loturiko dinamika ulertzen hasi nintzela pentsatzen nuenean, gazte euskaldun batek esan zidan Koreako abesti bat meme zela, eta ulertzen nuena hankaz gora jarri zuen. Zer zen memea, orduan? Gazte horren hitzetan beste esanahi bat zegoela susmatzen nuen, memeak metamorfosi bat izan balu bezala. Beraz, historia baino, egunerokoa aztertzen hasi behar nuela pentsatu nuen, eta interneten jendeak partekatzen zuen edukari arreta handiagoa jartzen hasi nintzaion. Eta konturatu nintzen beste herri batzuetako memeak ez nituela ulertzen. Antzeko mundu ikuskera zuten pertsonen meme batek antzeko aburuak iradokitzen zizkiela ohartu nintzen; memea, beraz, ez zen denok uler genezakeen zerbait, antzeko balioak eta jokabideak, kultura alegia, partekatzen duten gizataldeen baitan zentzua zuten eta errepikatuz zabaltzen ziren espresioak ziren, kultur transmisiorako sinboloak.

Memea, gazte harentzat eta bere mundu ikuskerarekin lerraturik zeudenentzat ulergarria zen eta batzen zituen hizkuntza sinboliko bat adierazten zuen. Aldiz, herri berekoak izanda ere, ni beste mundu batekoa sentitzen nintzen, bere memeak ez nituelako ulertzen. Berak, ordea, bazuen nire mundua eta sinboloak ulertzeko gaitasuna. ●

Beti Aingeru arrantzontziko tripulazioak tratu txarrak salatu ditu

MARIA ORTEGA ZUBIATE



JOSÉ LUIS GARCÍA (VESSEL FINDER)

Euskal Herrian da dagoeneko Beti Aingeru Pasaiaiko ontzia, bidaia luzearen ostean. Irailaren 27an armadoreak abisua eman zuen hamasei arrantzaleko eskifaiaitik, hamabi matxinatu egin zirela, hamabiak senegaldarrak, eta Asturiasko Guardia Zibilak jo zuen berengana. Armadoreak mehatxuak eta astinaldiak salatu zituen, eta porturatuta egon zen itsasontzia urriaren 1 goizaldera arte. Eskifaiaiko kideek ukatu egin dute matxinada, eta salatu dute armadoreak beraiek mehatxatzen zituela.

Eskifaiaiko kideek tratu txarrak salatu dituzte kapitainaren partetik. Azaldu dutenez, 26 egunez aritu ziren arrantzan Asturiasko uretan, “ziurgabetasun” handiarekin: salatu dute kapitainak “heriotza mehatxuak” egin zizkiela, eta “zaborra” ere bota ziela. Orduan erabaki zuten ez zutela lan gehiago egingo, baldintza horietan. Kapitainak “matxinada” deitu dio horri, baina langileek ukatu egin dute horrelakorik.

Erabaki zuten ez zutela lan gehiago egingo baldintza horietan. Kapitainak “matxinada” deitu dio horri

Asturiasen egindako geldialdiak piztu zituen alarmak. Han lur hartu bezain laster, itsasontziko kapitainak eta jabeak hiru arrantzale salatu zituzten, eta Guardia Zibilak ikerketa martxan jarri du: ustezko mehatxu delituengatik, eta hirutik bi ustezko eraso edo eraso saiakeragatik.

Euskal Herriko lurretan, langileen etorkizuna ezbaian dago. Urriaren 1ean bertan, Getariako kofradian bilera izan zuen armadoreak. Izan ere, istiluak istilu, armadoreak ez du jakinarazi inor kaleratuko duen; are, Euskal Herrira heldu aurretik, mugikorrari adi egoteko esan zien arrantzaleei. ●

MOTZEAN

Absolbitu egin dituzte Raimundo el Canastero musika taldeko ki-deak. Kantu parodiko bat egin zuen Lizarrako taldeak 2024ko udan, herriko festetako txosnagunea lekuz aldatu nahi zuelako UPNren udal gobernuak. Alkateak salaketa ipini zuen, "gorroto delituarekin", bere "heriotza desiratzen" zutelakoan. Epaileak adierazpen askatasunari egin dio erreferentzia, eta bost musikariak absolbitu ditu.

Europa da azkarren berotzen ari den kontinentea, batez bestekoa baino bi bider azkarrago, Europako Ingurumen Agentziak bost urtean behin lantzen duen txostenaren arabera: "Klima erritmo kezagarrian ari da aldatzen, eta hori arriskua da segurtasunerako, osasun publikorako, ekosistemarako, azpiegituretarako eta ekonomiarako". 38 herrialdetan bildutako datuak aztertu ditu Ingurumen Agentziak.

Kanakyko loialistekin eta Frantziako Estatuarekin sinatutako akordiotik atera da FLNKS alderdi independentista. 2025eko uztailaren 12an izenpetu zuten hiru aldeen arteko Bougivalerako Akordioa, irlaren etorkizun instituzionala adosteko asmoz. Frantziako Estatuaren "instrumentalizazioa" salatzean gain, FLNKS-k dio beraiek izenpeturiko dokumentua ez zela "akordio definitiboa".

Gose grebari ekingo diote Gasteizko lorezainek, akordiorik ezean. Sei hilabete bete dituzte greba mugagabeen. Hamaika mobilizazio eta Enviser enpresarekin zein Udalarekin eginiko bilera batzuen ostean "epe laburrean" akordiorik lortu ezean, borrokarako fase berri batean sartuko direla iragarri dute langileek. Enviser AEBetako inbertsio-funts putre baten esku dagoen azpikontrata bat da.

Egunero 600 futbol zelai adina natura-azalera hormigoi bihurtzen dute European. 2018tik 2023ra kolore berdea izatetik grisa izatera pasa den lur eremua 9.000 kilometro koadro ingurukoa da. *The Guardian*-ek argitaratu duen ikerketaren arabera, etxebizitzaren eta errepideen eraikuntzara ez ezik, luxuzko turismo, kontsumo eta aisialdira bideratutako lurrak dira.

Duela urtebete hasi zituzten Gatika (Bizkaia) eta Cubnezais (Frantzia) lotzeko interkonexioko lanak. Aurtengo irailean eman zuten abisua Butroe errekan bentonita isuriak agertu zirela, eta orain Atxuri ibaian ere agertu da bentonita, Mungiako Udalak (Bizkaia) ohartarazi duenez. URA agentziak obrak "berekala" geldiarazi ditu, eta txostena ireki dio Red Electricari.



www.argia.eus/eginargiakoa

**Babestu euskal
kazetaritza
independentea**

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

TXINAK ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LIDERGOA HARTU IZANAREN ARGI ETA ITZALAK

Europak bere helburu klimatikoak malgutzen eta AEBek zientziari bizkarra ematen dioten bitartean, Txinak mundu mailako elektrizitate berriztagarriaren lidergoa hartu du. Atzerrian inbertsio erraldoiak egiten dabil, bereziki Hego Globaleko herrialdeetan. Aldaketa geopolitiko handia da. Baina betiko: justizia klimatikorik eta kontsumoaren murrizketarik gabe, klima larrialdia eta ingurumenaren suntsiketa ez ditu konponduko.

 NICOLAS GOÑI

Joan den mende erditik hona, AEBak ziren mundu mailako ikerketa zientifikoaren liderra, bertzeekilako tarte oso handiarekin gainera. 2022an, BPGaren %3,59 inbertitzen zuten ikerketa eta garapenean –konparaketarako, Frantziako Estatuak %2,23 eta Espainiakoak %1,44–, eta erreferentzia zen arlo zientifiko ia guzietan: medikuntza, ozeanografia, Informazio eta Komunikazioko Teknologia Berriak, giza zientziak, erdi-eroaleak zein genetika. Hamarkadetan zehar eraikitako goi maila hori hilabete gutitan desagitea erabaki du oraingo buruzagitzak.

Bereziki, klima hitza tabu bilakatu da, hainbertze non eta berotegi efektuko gasak monitorizatzen dituzten satelite multzo bat –berriak, garestiak eta arazorik gabe martxan direnak– suntsitu nahi duela Etxe Zuriko agintariak. Harrigarria izanik ere, anekdotikoa da zientziaren aurkako bertz hainbat eta hainbat erasoren artean. Donald Trumpen kargualdiaren hasierako lehen neurrietan zegoen klimaren aldeko neurriak (bereziki Bidenen *Inflation Reduction Act* legea) desagitea eta berehala iragarri zuen energia berriztagarrien proiektuentzako baimenak deuseztatzeko asmoa. AEBetan

atzerakada horiek oso zalapartatsuak izan arren, ez dira herrialde horretan soilik gertatzen, eta ez ziren 2025ko urtarrian hasi: 2019tik 2021era, munduko gobernuek urtero ezarritako klima egokitzapen eta isurtze murrizketa neurriak 300 baino gehiago ziren, Nat Bullard energia adituaren arabera, 2023an, 200 baino gutxiago izan ziren, eta 2024an 50 inguru baizik ez. European edota Hego Amerikan, indarrean dauden hainbat legedia ahuldu dituzte eta beste andana ere da ahuldua –edo kendua– izateko presiopean, ARGIAren 2.927 zenbakiko *European, oraingo sinplifikazioaren izenean, biharko bizitzak kalitetuko dira* erreportajea aipatu bezala.

TXINA, BERRIZTAGARRIEN ERRALDOIA

AEBak zientziari eta arrazionaltasunari bizkarra ematen eta nazioarteko laguntza programak bertan behera uzten ari diren bitartean, azken urteotan Txinak hartu du energia berriztagarrien garapenaren lidergoa nazioartean. Abantaila nabaria dute: elektrifikazio globalerako ezinbertzeak diren lur urri edo lur arraro asko dute bertan. Bayan Obo meategian bakaerri, munduan ustiatzen den lur urriaren %60 inguru kokatzen da. Demagun,

2019an, munduko lur urri eskaeraren %90 inguru hornitzen zuen Txinak. Gainera, metal berezi horien fintze prozesu osoa garatuta duen herrialde bakarra da.

Abantaila geologiko horretaz baliaturik, Txina masiboki ari da inbertitzen nazioarteko elektrizitate berriztagarriari loturiko proiektuetan. Azken urteotako gorakada izugarria izan da: Net Zero Policy Lab erakundeko Tim Sahayek dioskunez, 2011tik goiti Txinako enpresek 227.000 milioi dolar inbertitu dute atzerrian, 54 herrialdetako 461 industriagunetan, eguzki-elektrizitatea edo eolikoa ekoizteko eta biltzeko proiektuetan. Inbertitze erraldoi horren %88 egin du 2022az geroztik. Konparaketarako, gaur egungo dolarretan, Bigarren Mundu Gerraren osteko Mendebaldeko Europaren berreraikuntzarako *Marshall Plan*ak 200.000 milioi ekarri zituen.

Txinak inbertitu duen proiektu horien %75 baino gehiago Hegoalde Globaleko herrialdeetan dira. Herrialde batzuk gako bilakatzen ari dira sektore zehatzetan, besteak beste, Indonesia bateria nikel-dunak ekoizteko materialetan, Maroko katodoetan eta hidrogenoan, Persiar golko arabiar estatuak eguzki paneletan eta elektrolisia gailuetan eta Egipto eta



LIDERGOA Txinak hartu du nazioartean energia berriztagarrien garapenaren lidergoa, Hego Globaleko hainbat herrialdetan inbertsio erraldoiak eginik.

Brasil sektore zehatzetarako bateria logistikan eta garraioan. Kanpoan egindako inbertsioei gehitu behar zaie Txinan bertan eguzki- eta haize-elektritzitatean inbertituriko 340.000 milioi dolar. Joera horretaz oharturik eta atzean ez gelditze-ko bultzatu zuen Joe Bidenen administrazioak *Inflation Reduction Act* edo Inflazioa Murrizteko Legea –gaur egungo administrazioak bertan behera utzi duena, erre- gai fosiletara itzultzeko eta bide batez, gu erostera behartzeko, ARGIA Gorka Peña- garikanok zehazten zigan bezala *AEBek Europako produktuei %15eko muga-zer- gak ipiniko dizkie, eta alderantziz ezer ere ez artikuluan*-. Klimaren aldeko aspaldi- ko aktibista eta 350.org mugimenduaren bultzatzaile Bill McKibbenek dio gaur egungo AEBetako administrazioa ez dela gai berehalakotasunik harago pentsatze- ko, eta Txinak, aldiz, hainbat hamarkade- tako planak eginak dituela.

MENPEKOTASUNETIK ATERA, EDO MENPEKOTASUNEZ ALDATU?

Hego Globaleko herrialde askoren intere- sa erregai fosilen menpekotasunetik ate- ratzea da, ARGIAren 2.924 zenbakiko *Pakistan energia trantsizioan zegoen erregai fosilen eta kriptotxanponen interesak tar- tean sartu arte* erreportajea aipatu beza- la. Pakistanek, hain zuzen, 2024an Txinatik 17 GWeko kapazitateko eguzki panelak in- portatu zituen, munduan hornidura horien inportatzaile handiena bilakaturik. Horre- kin batera –edo horren ondorioz–, Qata- rretik bideratu gas inportazioak murriztu zituen, eta ez litzateke harrigarria joera ho- rrek ere eragina izatea Pakistan petrolio- a erostera behartzeko AEBek egin dituzten ahaleginetan.

Orain arteko Txinako inbertsio horiei esker denetara lau gigatona CO₂ isurketa saihestuko dituzte, CarbonBrief webgu- nearen arabera. Halere, berriztagarrien

sekulako hazkunde hori ez dator arazo- rik gabe: *Planetary Mine: Territories of Extraction under Late Capitalism* (Mina planetarioa: erauzketaren lurraldeak ka- pitalismo berantiarraren pean) liburuan Martín Arboleda soziologoak zehazten duen bezala, gaur egungo elektrifikazio globalak kate logistiko berriak eraiki- tzen ditu, baita ustiapen berriak ere. Txi- len litio meategien inguruan bizi direnek badute zer konta, Nigerian petrolioak ku- tsaturiko eskualde txiroetan bizi direnek kontatzeko asko duten bezala. Txinan ber- tan ere, Bayan Oboren inguruan, normala baino 32 bider handiagoa da erradioak- tibatate maila –konparaketarako, Txer- nobylen 14 bider dute– eta minbizi asko lur urrien prozesatzeari lotuak direla sus- matzen du Txinako Greenpeace taldeak. Justizia sozialarekin bat egiten ez duen trantsizioak lurralde eta talde batzuk sa- krifikatzen ditu bertze batzuei energia –ez hain– garbia hornitzeko.

Konponbidea, beraz, ez da berriztaga- rrien hazkunde mugagabea soilik: be- rriztagarriak konponbidearen parte dira, kontsumoaren doitzeta eta justizia sozia- larekin batera. IPCC Klima Aldaketari Bu- ruzko Gobernu Arteko Taldeak 2022an argitaraturiko *The Just Transition: Shaping the delivery of the Inevitable Policy Response* (Bidezko trantsizioa: politikaren erantzun saihestezina ematea moldatzen) txostenean argi utzi zuen trantsizioaren justizia sozial mailak trantsizioaren era- ginkortasuna bera ere baldintzatzen due- la. Hori ez da aldatu, eta uztartze hori ez da soilik gigawattetan neurtzen. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23, Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Zinkunegi Optikan ikasturte hasierarekin batera **umeei zuzendutako** ikusmen azterketak egiten ditugu.

Ukipean-lenteak, miopiaren kontrola eta ikusmen terapia ere baditugu.

Jose Mari Rekarte

GORA GURE IKASTOLA



GURE GARAIAIN INORK EZ ZEKIEN EUSKARAZ ETA ORAIN, BERRIZ, DENEK DAKITE



Konplitu da Txirritaren esana: 'Nire aipamenak izango dira / beste laurogei urtean'. 1936an hila, txitean-pitean dabilta oraindik haren bertsoak. Horixe bera da Rekarteren kasua. 50 urte baino gehiago dira Arabako lautadan Aguraingo eta Araiaiko ikastolak sortu zituenetik, eta, gaur egunean ere, hark ereindakotik ari dira han eta hemen euskararen uzta jasotzen.

 M.A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Trumoi hutsa zinen garai batean...

Arraioa! Urteak ez dira alferrik joaten. Karga pisua! Gorputza berazten, eta memoria ere zulatzen. Zer esango dizut, bada, ez dakizunik?! Eta? Zer jakin nahi zenuke? Aspaldi esan nizun ez zaidala gustatzen neure buruaz hitz egitea.

Ea, bada, nola konpontzen garen...

Zerk ekarri zaitu oraingoan nigana, Elustondo?!

Esan beharra ere! Arabako hainbat ikastolak zeuri zor dizute sorrera. Endreda-makila handia izan zara beti, zure informaziorik gabe

ezin jakin nola sortu zen Araiaiko ikastola, adibidez. 50 urte beteko ditu aurten.

Hara, bestea! Nola sortu genuen Araiaiko ikastola!? Hi haiz, hi, dena jakin ustezko ezer ezjakina!... Araiaiko ikastola Aguraingoa ireki eta hilabeteetara ireki genuen, betiko moduan jokatura. 1976ko San Sebastian bezpera egunekoa da Araiaiko ikastola. Nola sortu genuen?... Lehenengo, herriko abadearekin kontaktatu genuen. Ez zen zaila ere, garai hartan denok elkar ezagutzen genuen-eta, banakak ziren mezatara joaten ez zirenak edo nola edo hala elizarekin loturarik ez zutenak. Hasteko, bataiatu-

ta geunden denok. Hortaz, parroketan haur guztien izenak zeuzkaten, eta haurren gurasoenak, alegia. Elizaren erre-gistroak kontsultatu, zerrenda osatu, eta martxan jartzen ginen.

Udalak ere izango zuen, bada, erregistro zibila?

Hi noiz jaioa haiz, ordea!? Patxi zaharra [Francisco Franco diktadorea] bizirik zegoan, haren esku zeudean instituzio guztiak, udal, diputazio eta denak! Baita elkarterik txikienak ere! Okurritu ere ez haietara jotzea! Herrietako abade asko, berriz, gure asmoan laguntzeko prest zeuden, batzuk beste batzuk bai-



Jose Mari Rekarte Fernández de Lezea

ZUMARRAGA, 1943



Neke da definitzen. Langile izan zen Agurainen eta, horrekin batera –edo hori baino gehiago–, ikastolak zabal-tzen lan egin zuen Araban, horretan inor ari ez zen garaian, inor barrendu ez zen toki eta bazterretan. Hein handi batean, Rekarteren ekimenari zor diogu gaur egun hainbat euskaldun izatea Oionen, Lapuebla de Labarcan, Bastidan, Lantziegon, Mañuetan eta bestetan. Rekar-teri, hala ere, ez zaio bere buruaz hitz egitea gustatzen.

no gehiago –hori ere egia da–, baina lautada alderdi honetan, behintzat, ez ziguten erregistroa ikusteko eragoz-penik jarri. Nik esango nuke gurekin bat zetoze. Abade askok –abertzaleek, oroz gain–, gorriak eta bi ikusi zituzten gerra ondoren, eta, ez gutxi, herri txiki edo baztertuetara ere bi-dali zituzten “zentsagarri”. Hala ere, garaian hemen zirenak gazteak ziren, gutarrak.

To ta no, “gutarrak”! Bego bere horretan Donostiako gotzainaren zikin-estalia, edo zikinbrilloa...

Gogoan dituzu abade haiek?

Bai, bada! Ez akordatzeko moduan! Patxi Zabaleta, legazpiarra, Agurainen genuen. Pablo Korres ez zebilen oso apartean. Narbaizan, don Antonino zegoen. Jende egokia, denak. Guri laguntzeko prest.

Eta haurren zerrenda eskuan, zer egiten zenuten?

Gurasoak bildu! Agurainen bizi nintzen –herria handia ere ez, garaian–, eta ez zen zaila izan hainbat guraso biltzea. Zure Araia horretan, berdin. Agurain ondo-ondoan, herria ere txikiagoa. Ez zen oso zaila izan. Euskaldun batzuk ere baziren bertan. Araian ez bazen, ondoko herri txikiagoetan, Galarretan, Albeitzen, Andoinen, Gordoan, Ilarduian...

Euskaldunak? Bertakoak?

Ber-bertakoak ez baziren, Zegamatik eta etorritakoak. Orain jendea Aizkorri-eta lasterka ibiltzen da San Adri-netik barrena, baina bide horrek antzi-na, –eta ez hain antzina ere–, Arabako Lautada eta Gipuzkoako Goierri lotu zituen. Esan nahi dut, Araian oraindik ere badirela Zegamatik etorritakoak, euskaldunak.

Hortxe duzu Ruiz de Eginobat, adibidez. Luzuriagan jaioa da, baina gaztetatik Galarretan bizitako: zegamarra egin zuen andrea, Berasategi bat, eta ama horrek euskaraz hazi zituen seme-alabak. Eta, esaterako, ikastolako lehen umeetakoak izan ziren haien haurrak.

Gurasoak biltzen zenituen, eta zer esplikazio ematen zenien?

Gutuna bidaltzen genien, bilera batera etortzeko eskatuz. Ez genuen ikastola konturik aipatzen. Horixe zen asmoa, baina ez genuen inor izutu nahi izaten. Ez lehenengoan, behintzat. Hiru urteko umeentzako haurtzaindegia ireki nahi genuela esaten genuen, eta ele bitan izango zela. Jakina, esaten genien Agurainen irekia genuela, ondo ari zela, apaizak lokala utzi zigula, andereño euskaldun bat bagenuela, gurasoak gustura zeudela...

Junkal [Olaondo, andrea] eta biok goxo-goxo hasi ginen euskarazko gela irekitzen Agurainen. Junkal, euskalduna, eta bera izan zen gela hartako lehen andereñoa. Gero, Araiako gela ireki genuenean, eta andereño gehiago behar izan zirenean, geure etxean hartu genituen bizitzen. Gerokoak dira Juanito Zelaiaren laguntzak-eta. Askok dakiena baino gehiago lagundu zion herri honi Juanito zenak.

Eta, zer zioten gurasoek?

Batzuek baietz, eta beste batzuek ezetz. Batzuek ez zuten dudarik egiten, beren umeak gure proiektura ekarri zituzten. Beste batzuek ez zuten gure asmoan sinesten. “Nora zoazte, ordea? Zer egin behar duzue halako ume txikiak hartuta? Haiei ipurdia garbitu?”. Halako hamaika! Baina proiektura bildu zirenek aurrera egin zuten. Hiru urtekoekin-edo hasi ginen, eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra osoa osatu genuen, nahiz eta

ordurako Araiako eskola publikoarekin bat egin behar izan genuen. Eusko Jaurilaritzak ikastola eta orduko eskola fusio-natzeko agindu zuen, eta horixe. Baina, behintzat, orduko A eredu-ko eskola B eredu-ra ekarri genuen, eta, geroago, D eredura egin zuen zentro fusionatu hark.

Parrokietan haur guztien izenak zeuzkaten, eta haurren gurasoenak. Elizaren erregistroak kontsultatu, zerrenda osatu, eta martxan jartzen ginen”

Agurainen hasi zinen ikastola irekitzen; gero ikastola izango zena, behintzat. Hurrena, Araian. Hurrena, Legution. Hurrena, Arabako Errioxan. Nola, ordea?
Ez nuke jakingo esaten...



Rekarteren emazte Junkal Olaondo izan zen Aguraingo ikastolako lehen irakaslea.

Zuk beste inork ezin jakin hori!

Kontua da Juanito Zelaia zenaren txoferra nirekin harremanetan jarri zela. Juanitok nirekin hitz egin nahi omen zuen. Eta Marieta-Larrintzarrera joan nintzaion. Zer ari nintzen galdetu zidan, eta euskarazko gelak-eta irekitzen ari nintzela esan nion, eta nahiko lan bage-nuela, makina bat gabezia eta hau eta hura. Eta dirua eman zidan, andereñoi ordaintzeko edota era guztietako materiala erosteko. Eta handik hamabost egunera, joateko berriz. Eta joan nintzaion, jakina. Eta nik gure lanaren berri eman, eta hark dirua. Eta... orain bai! Berak esan zidan Arabako Errioxara joateko!

Juanito Zelaiak?

Bai. Agurainen, Araian, Legution... gelak irekita, halako batean esan nion Lan-graizen ere ireki nahi nuela gela haietako bat. Berak baietz, eta hurrena, Arabako Errioxan saiatu behar nuela esan

zidan. Berak esan zidan. "Zertan hago hor? Segi, bada, eta ireki ikastolak Arabako Errioxan ere!". Lokalak beharko genituen, andereñoak, nominak egin, gizarte segurantzak ordaindu... eta hor, Juanito ezinbestekoa izan nuen. Besteren batek ere lagundu zuen... Behin, Arabako gobernadore zibilaria ere kendu genion dirua.

Hara, bestea! Nola izan zen hori?

Carlos Caballero eta biok joan gintzaizkion. Euskarazko gelak eta ikastolak zabaltzen ari ginela, eta laguntza eskatu genion, esanez euskararen alde ari ginela, lanean gure hizkuntza zaharra betiko ez galtzeko... Eta guk dirua eskatu hari ere, eta hark eman! Ez dakit ez ote ziren 12.000 pezeta-edo. Gasteizko Agirre ebantistak ere lagundu zigun.

Hala ere, Juanito Zelaiak esanda hasi zinen euskarazko gelak eta ikastolak



PISTOLARIK EZ

"San Sebastian bezpera egun batean atxilotu ninduten 1973an. Lagun bat banuen Zumarragan, Antton Jaka, behin, Aguraingo etxean ezkutatu genuena. Hark pistola ibiltzen zuen, nire andreak ikusi zion burukoaren azpian! Nik ez nuen pistola ibiltzeko adorerik. Paperak-eta banatu eta hau eta hura bai, baina pistolarik ez. Non edo non agertu zen nire izena, ETak Felipe Uharte enpresaburua bahitu zuen garaian [1976ko urtarrila], eta barrura ni, batere kulparik gabe".

IZENAK

"Agurainen atxilotu ninduten, Guardia Zibilak nik lan egiten nuen enpresara etorrita. Txikiaren [Eustakio Mendizabal] atzetik zebiltzan. Urte hartan bertan hil zuten Algortan! Eta betikoa, izenak emateko. 'Zer izen, ordea?'. 'Komandokoenak!', poliziak. 'Zer komando, ordea?', nik. 'Hobeko duk dena esan Aguraindik irten orduko!'. Eta zer esan behar nuen nik, ezer ez zekien honek!? Olagibel [Gasteiz] kaleko polizia etxera eraman ninduten, eta handik Iruñeko kartzelara".

Azken hitza

ABERTZALEA

"Ez dakit euskaraz baina euskararen aldeko amorratua naiz, gure herriaren kulturaren aldeko sutsua. Lehenengo, abertzalea naiz. Eta gero gero-rokoak!"

zabaltzen Arabako Errioxan.

Berak esanda, bai. Eta hantxe hasi nintzen, batera eta bestera Arabako Errioxan ere, Guardiatik hasi eta Lapuebla de Labarcaino. Xelebrea da...

Zer da xelebrea?

Inon ez bezala saiatu nintzen Guardian, eta inon ez bezalako frakasoak izan nuen han. Eginahalak eta bi egin nituen, BBK ere laguntzeko prest zegoen, Briñasko udalekuaren egoitza utziko zigula agindu zigun... baina Guardiako jendea Briñas urruti zegoela iruditu zitzaion, eta herriz herri saiatu behar izan nuen. Eta ibili nituen Bastida, Eltziego, Lantziego, Oion, Mañueta, Lapuebla [de Labarca] eta ez dakit zenbat herri. Ordurako, Arabako Ikastolen Elkartea osatuta zegoen, eta errazagoa zen. Garai hartako gurasoekin hitz egin beharko zenuke, eta ni bakean utzi, Elustondo!

“Bakean utzi arte”, beraz, zu ere. Joanak dira 50 urte ere, Araian, adibidez. Zer iruditzen zaizu egindako hura?

Ikaragarria! Nork pentsatu behar zuen, garai hartan, gaurko egunean daukaguna eduki behar genuela? D eredua izango zela nagusi irakaskuntzan? Hori ez zegoen gure buruan, pentsatu ere ez! Euskarazko irakaskuntza guztiz sendotu da gure herrietako ikastetxeetan, eta, orain, jendeak euskaraz hitz egiten hastea besterik ez dugu behar. Gure garaian inork ez ze-

“

Nork pentsatu behar zuen, garai hartan, gaurko egunean daukaguna eduki behar genuela? D eredua izango zela nagusi irakaskuntzan?”

kien euskaraz eta orain, berriz, denek dakite, edo jakiteko aukera dute. Hitz egin, bada, euskaraz! Zeren zain zaudete?!


Euskarazko gelak irekitzen jardun zenuen, ikastolak irekitzen eta sendotzen, eta zuk zeuk ez dakizu euskaraz...

Ulertzen dut, pixka bat, edo pixka bat baino gehiago. Interesatzen zaidanean gehiago ulertzen dut, in-

teresatzen ez zaidanean baino. 1943an jaio nintzen, Zumarragan. Gure amak ez zekien euskaraz, eta garai hartan ez nuen ezertarako aukerarik izan, abertzaletasun beroa bizitzeko eta kultur gogo handia izateko besterik. Horixe esaten dut nik oraindik, lehenengo, abertzale izatea dela, eta gero gerokoak. Hargatik saiatzen naiz orain Nabarralden-eta. Besterik zer jakin nahi zenuke? Denak kontatu dizkizut honezkero!

Zuk denak kontatu? Kontatu dizkidazunak adina dira gorde dizkidazunak!

Batere ez nizukeen kontatu behar! ●



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupéry





Iritziak

Nork irabazten du?



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

Onartzen dut sare sozialek nahi baino denbora luzeagoa kentzen didatela hainbatetan, eta guztiak ezabatzeko ideia buruan ibiltzen dudala maiz. Debate antzuak gogaikarriak eta bortitzak iruditzen zaizkit batzuetan, eta geroz eta zabalagoa den eskuin muturreko ideien presentzia zinez beldurgarria dela deritzot. Hala ere, noizean behin kontu interesgarriak topatzen ditut, kuriositatea pizten duten horietakoak. Horrela egin nuen topo Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) argitaratutako *Bakardadetik gizarte-konexiora* deituriko txostenarekin. Beharbada, sentimendu horiekin behin baino gehiagotan konektatu dudalako-edo, gehiago jakiteko go-goia sentitu nuen.

Txostenaren hasieran zehazten diren bi kontzeptuak isolamendu soziala eta desiratzen ez den bakardadea dira; izan ere, bakarrik egoteak ez du zertan bakardade sentimenduarekin loturik egon, eta bakarrik sentitu daiteke jendez inguratuta ere. Bakardadearen arrazoiak pertsonatik pertsonara aldatzen badira ere, egindako ikerketak honakoak zehazten ditu kausa nagusi gisan: osasun arazoak, hezkuntza eta diru-sarrerak, nortasuna, inguruko komunitatea, bizitzako pasarte edo trantsizioak, eta teknologia digitala. Dirudienez, fenomeno hau geroz eta zabalduago dago munduan eta adin guztietan; besteak beste, 13-29 urteko gazteen %20 inguru sentitzen omen da bakarrik,

Zeintzuk dira desiratu gabeko bakardadearen onuradunak? Zein rol hartzen dute sektore pribatuko askotariko kolektiboek? Nork irabazten du?

eta zaurgarri diren kolektiboak tendentzia handiagoa omen dute sentimendu hau nozitzera: izan aniztasun funtzionala duten lagunak, izan errefuxiatu edo migratzaileak, izan kolektibo minorizatuak.

Desiratzen ez den bakardade sentimenduak askotariko ondorioak ditu, baina larrienetakoa da, zalantzarik gabe, osasunean duen inpaktu negatiboa. Baiez-tapen hori osasun alorreko hamaika ikerlanek babesten dute, eta inork gutxik jartzen du zalantzan. Galizian, A Coruña eta Vigoko unibertsitateetako hiru ikertzailek, bakardade sentimenduak Espainiako Estatuan izan lezakeen kostu soziala estimatu zuten iaz, eta ateratako ondorioek askotariko eztabaida-ildoak ireki baditzakete ere, proposamen interesgarria dela iruditu zait. Ikerlana ñabardu-

raz beteta dago, baina honako ideia hau deigarria iruditu zait: nahi gabeko bakardadeak 14 milioi euroko kostua sortzen duela estimatzen da, BPGaren %1,2 gutxi gorabehera. Horretarako, hautatutako laginak erabilitako osasun-baliabideak, kontsumitutako botikak, eta lan-egoera aztertu ziren; hots, osasun zerbitzuetan gastatutakoa eta lana ez egitearen ekoizpen galera. Autoreek onartzen duten moduan, ikerketa honek mugak izan baditu, bai estimazioetan erabilitako datuetan, bai hautatutako adierazleetan, bai hautatu ez direnetan. Bizitza kalitatearen inguruko eta heriotza goiztiarrari dagozkion kostu ukiezinak kontuan hartu badituzte ere, bereziki aipagarriak dira kanpoan geratu diren eta bakardadearekin lotura zuzena duten tristura, autokonfiantza falta edota autoestimu baxua, besteak beste.

OMEn txostenaren amaieran, konexio soziala sustatzeko proposamenak zehazten dira. Horien artean daude politika sozialen sustapena, herri-estrategiak, edota kanpaina eta sareen eraketa. Gehienak sektore publikotik sustatu daitezke, kolektibotasunetik. Euskal Herriko hainbat herritan ere pixkanaka ekimenak martxan jartzen ari dira. Hala ere, testu hauek guztiak irakurtzen nenbilenean buruan il-tzaturik nuen galderari bueltaka darrait: zeintzuk dira desiratu gabeko bakardadearen onuradunak? Zein rol hartzen dute sektore pribatuko askotariko kolektiboek? Nork irabazten du? ●

Eskola, erreformatu ala eraldatu?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Heziketan egin beharreko aldaketak etengabe dira hizpide, gizarte-eraldaketari begira heziketak duen garrantziaz jakitun, horra begira jarri beharra duelako modu batean ala bestean bizitza-eredua aldatu nahi duen edozeinek. Eginkizun horretara jarritakoan, baina, curriculumaz ari izan ohi gara, haurrek eta gazteek jaso beharko luketen informazioaz, alegia. Eta hori garrantzitsua dela ukaezina izanik ere, hain esplizitua ez den baina asko eta sakonki eragiten duen eduki mota bati ere begiratu beharko genioke: eskolaren curriculum ezkutukoa osatzen duenari.

Eskolak duen funtzio ideologiko eta psikologikoan eragina du, noski, eduki esplizituak, baina *formateo* lana beste elementu batzuen bidez lortzen da, nagusiki. Hortaz, gure helburua ez baldin bada eskolaren erreforma hutsa, baizik eta eskola benetan beste zerbait bilakatzeari, elementu horiek zein diren identifikatu behar da, eskolatik erauzi ditzagun, moldatu baino. Ezagutzen dugun eskola hainbeste naturalizatu dugu, non eskola-kontzeptu berri bat irudikatzea bera kosta egiten zaigun, baina *eskola den hori* auzitan jarritz baizik ez dugu lortuko benetan berria den eskola diseinatzea.

Eskola definitzen duten ezaugarri batzuei heldu baino lehenago, eskolak gizartean duen gehiegizko funtzioari eta botereari erreparatu nahi nieke, aitortu zaion (edo *diogun*) zilegitasuna urrutiegi doala uste baitu, eta horrek dakartzan

ondorioak ez ditugulako oraindik behar bezala neurtu. Aipatzekoa da, adibidez, nola lan mundurako behar ditugun tituluak eskolaren bitartez lortu behar diren –edo hala dela uste izaten dugu, bederen–, eta horrek bakarrik (ia) derrigorrezko bilakatzen duela eskolatzea, eskola-eredu zehatz samarrean, gainera.

Eskolaren derrigorrezkotasunak komunitatean duen eraginaz ez dugu nahikoa gogoeta egin, baina honetaz ohartu beharko ginateke: eremu naturaletik ateratzen dituenean, eskolak haurrak "bahitu" egiten dituela, nolabait. Hori gutxi balitz bezala, ume eta gazteen denbora guztiaren jabe bilakatzen da eskola, dagokion denbora-tarte horretaz gain –jada asko dena–, etxerako lanak eta memorizatu beharreko edukia agintzen dizkielako haurrei, eta beren bizitza osoa kolonizatu.

Eskola barruko bizitza ez da bizitzarekin oso bateragarria. Erritmo bizia eta estresagarria ezartzen ditu berez lasaia beharko lukeen ikasketaren eremuan, eta bizitza kanpoan uzten du, ikasketarekin bateragarria ez dela zeharka iradokita. Pertsonen motibazio eta jakin-min naturala itzaltzen du, gure benetako interesak beste norbaiti interesatzen zaizkion edukiengatik ordezkatuta. Gugandik



DOM CAMPISTRON

deskonektarazten gaitu, ikas dezagun beste batek gugandik lortu nahi duena ematen. Ohartu al zarete ikasleek eskolan igarotzen duten egun tipiko batean ez dutela ezer erabakitzen ahal, eta ezin diotela ezeri ezetz esan? Ezin dute zerbait nola egin nahi duten probatu, noren ondoan eseri nahi duten hautatu, eta dena zaie kanpotik ezarria, antolatua, bideratua eta gidatua.

Gero, inozente diruditen baina guztiz ideologikoak diren eskolaren ezaugarriak daude. Kalifikazioak, denerako baimena eskatzea (ikasleek), irakaslea autoritate izatea eta denak hari begira eta adi egon beharra, intelektua-zientzia-teknologia hobestea, obedientzia eta lehiakortasuna. Bai, badakit, beldur pixka bat ematen du kontuak hala begiratuta, baina mesfidantza pixka bat ez da txarra. Eskola ez delako ez hain aingerutarra, ez hain neutroa, ezta hain askatzailea ere. ●

Txiki eta Che



ARKAITZ ZARRAGA
EUSKARA IRAKASLEA

Txikitan, Txiki eta Che Guevara nahasten nituen. Umetako lainoarte baten moduan gogoratzen dut, baina gerora ulertu dut: Txikik Che miresten zuen. Horregatik, haren aurpegi mitikodun kamisetarekin agertzen da bere argazki gogoangarrian, eta *Askatasun haizea* poema euskarara ekarri zuen eta bere heriotzaren oroigarri bihurtu.

Hamarkada haietan Abya Yala osoan izan ziren mugimendu armatuak, marxismoaren inguruan (ñabardurak ñabardura) lerratuak gehienak, AEBek finantzaturako eta ezarritako diktadura ugari aurre egiteko: FMLN, Fronte Sandinista, Kubako iraultza, Tupac Amaru... baita Kolonbiako FARC ere. Mugimendu haiek helburu “sozialak” zituzten; ez, ordea, kolonizazioak ezarritako zapalketak gainditu eta jatorrizko herrien eskubideak berrezartzea. Ondorioz, herri gehienek atzera egin zuten, eta hizkuntza asko desagertu edo nabarmenki gutxitu ziren.

Gaur egun, komunitate horietako askok dute euskararen biziberritzea eredu moduan, eta inspirazio horretatik ari dira edaten haien hizkuntzei arnasa eman nahian. Elkarrengin horren barruan, aurtan hamargarren bidaia egin dut Kolonbiara eta berriro argi ikusi dut nasa herriak eta bizirik eta zutik dirauten Abya Yalako jatorrizko herriek, oro har, asko dutela guri irakasteko, inspi-

razioa bila dezakegula haiengan, baina, gainera, egoerak oso ezberdinak izan arren, hainbat arazo partekatzen ditugula. Sarritan, ispilua jartzen digute aurrean, hizkuntzaren biziberritzean bezala, beste hainbat arlotan ere.

Nasak gogor eta argi ari dira hizkuntzaren alde, nahiz eta inguruan duten bortizkeria ikaragarria izan. FARCEko disidentziek, 2016ko bake akordioak bete ez izanaren ondorioz sortuak, galdu egin dute izaera iraultzailea, eta drogaren ekoizpena eta garraioa zaintzeaz arduratzen dira nagusiki, elkarren artean lehiatuta. Kolonbian, mugimendu askoren indar metaketa handiaren ondorioz, gobernu aurrerakoia dago, eta aukerak daude urrats sendoak emateko, baina norbait ari da disidentziak xaxatzen, elikatzen... Askok argi dute: Uribismoarekin ari dira.

Aurtan Bogotan egon naiz lehen aldiz. La Trocha ezagutu dut, FARCEko kide desmobilizatuak sortu duten espazioa. Benetan eredugarria da hiri erdian hausnarketarako, sormenerako eta kideak lan-munduratzen laguntzeko sortutako egitasmoa; hunkigarria hausnarketarako tximeleten gela, akordioen ostean hildako kide bakoitzeko tximeleta batekin apaindua; ederrak argazki historikoak, kartelak, margoak.... Bertan Che Guevararen argazki bat ikusi dut. Txikiren argazkidun kamisetagaz irudikatu dut! ●

Diluzio



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Kosta egiten da hitz autorizatuak eraikitzea gaur den egunean, nahiz eta hitz horiek zerbaiti buruzko ezagutza sakona duten pertsona batzuenak izan. Maria Teresa Andruetto idazle argentinarrari entzuna nion ohartarazpena: jakintzarekiko eta lan iraunkorrekiko gizarte-deskalifikazioa normalizatuxea dago. Begirune hori diluitu egin da -batzuetan Orwellek sinatuko zituen eslogan xelebreak erabiliz-, eta giro ustez berdinzale batek iraganari bide zegozkion liderrak ernarazi ditu hor-hemenka. Hauteskunde demokratikoetan aukeratutako motozerradun presidenteak barne.

Diluzio arriskua ez dago Atlantikoa-
ren bertze aldean bakarrik; ez eta politikari neoliberalak sustatzen dituzten agintarien nahiz dirudunen artean soilik ere. Euskal Herrian ere badakigu fenomenoaren berri. Bai eta euren burua ezkertiar, iraultzaile edota kritiko ozenki aldarrikatzen dutenen artean ere: azken batean, euskaldunok ere psikologiaren eta soziologiaren lehengai izaki, gainerako herrien paretzu.

Eta ahotsak bereizi gabe berdintzen direlarik, zaratak bazterrak kakazteko gaitasun handia du. Baita kausa noble baten izenean ere. ●

Eskasia



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Gero eta ahots gehiagok –ez eskuintetik bakarrik– “migrazioaren arazoari” ausarki helduko diotela aldarrikatzen dute. Narrazioa nahi baino ezagunagoa da: lanpostuen, zerbitzu publikoen eta baita etxebizitzaren gaineko lehian ere, baliabideak omen direlako, berez, naturalki eskasak.

Ekonomia fakultateetan egon garenok ondo ezagutzen dugu hitz hori: “eskasia” da ortodoxia ekonomikoaren funtsa. Robbins-ek (1932) definizio kanonikoa ezarri zuen: ekonomia, baliabide eskasen banaketa optimoaren zientzia. Marko horrekin, eskaria lege natural gisa aurkeztu da, eta banaketa xehetasun tekniko batera mugatzen da, merkatuak –ustez neutroa– prezioen bidez konpontzen duena. Eredua aurrez emandako baliabide-horniduratik abiatzen da eta gizarte-erproduktzioaren arazoa optimizazio kontu bat bihurtzen du, eredu matematikoez eta suposizioez determinazio historiko, sozial eta politikoak abstraktuan uzten dituztelarik; ez da galdetzen nola sortzen den edo nola eskuratzen den. Horrela, gabezia bihurtzen da lege natural,

Ez da baliabide mugatuak direla, baizik eta banaketa desberdina eta merkatu-mekanismoak dira eskasia ekoizten dutenak

eta banaketa, merkatuan gauzatzen den xehetasun tekniko.

Ekonomia konbentzionalaren funtzio apologetikoa horretan datza: eskasia eta haren esleipenaren efizientzia arazo natural eta neutral gisa aurkeztuta, kapitalismoaren egitura sozial eta ekonomikoak optimo eta ordezkaezin gisa legitimatzen ditu. Baina, berez, ustez unibertsalak diren arazo horiek oso gutxi esaten digute erakunde zehatzei buruz, hala nola jabetza pribatua. Kontzepzio horrek ideolo-

gikoki jarduten du: kritika sozial sakona ukatzen du eta eskasia benetan azaltzen duten egiturak eta gatazkak isilarazten ditu. Izan ere, ez da baliabide mugatuak direla, baizik eta banaketa desberdina eta merkatu-mekanismoak dira eskasia ekoizten dutenak.

Nahiz eta ekonomia konbentzionalak oro har unibertsalak dela aldarrikatu, individualismoa, eskasia eta lehia azpimarratzean, bere analisiak Europa eta Amerikan garai modernoan nagusitu diren ideologia-ikuspegiak islatzen ditu, beraz, eskasiaren eta lehiaren ideiak gizarte osora hedatzean, darwinismo sozialaren diskurtsoa erreproduzitzen dugu. Ez dut uste –bereziki krisi ekologikoaren garaian– ugaritasunean oinarritutako ekonomia denik utopia moduan irudikatu beharko genukeena. Baina munduko aberastasunaren erdia %1 aberatsenaren esku dagoen munduan, “denontzat ez dagoela” planteatzea abiapuntu modura –errealismo pragmatikoaren jarrera moralizatzaile batetik– hurbilago dago *statu quo*a defendatzetik, egia deserosoak aurrez aurre ikusteko ausardiatik baino. ●

Bodegas Lezaun
ASADOR - JATETXEA

BISITAK GIDATUAK MAHASTIETARA •
BISITAK GIDATUAK UPETEGIRA •
ARDO-DASTATZEAK •
BAZKARIAK ETA AFARIAK •
ARDOEN ZUZENENKO SALMENTA •

📍 LAKAR -DEIERRI- (NAFARROA) ☎ UPEGIA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM ✉ INFO@LEZAUN.COM

Gozamen erraldoirako...



Erraldoi eta buruhandien

Familien jokoa
eta Memonia jokoa

Euskal Herri guztitik etorritako
erraldoi eta buruhandiak protagonista:
erraldoi kirolariak, Sanferminetakoak,
mitologikoak, ipuinetakoak...

"Abentura Erraldoia" ipuinak

Sinesteko zailak diruditen gauzak gertatzen dira Alajaineta herrian: bizia hartzen duten erraldoiak, urrunetik datozen erraldoi hegalaria... Sekulako pagotxa, abentura erraldoiak bizitzeko beti prest diren Izar, Ainubi eta Etxahunentzat.



(+34) 943 37 15 45
azoka.argia.eus

Lasarte-Oriako egoitza irekita dugu
8:00etatik 15:00etara

Bidalketa gastuak 5€
Bidalketa doan 40€tik gorako erosketetan

Ikasleen osasun emozionalak hartu du eskola

Eskolak gero eta arazo psiko-sozial eta emozional gehiago antzematen dituen garaiotan, zein dira ikasleek azaleratzen dituzten korapilo nagusiak? Nola kudeatzen dute hezitzaileek hori guztia eta noraino iristen da eskola? "Hainbat kasuk gainezka egiten digu, baina ezin ditugu pasatzen utzi, pertsonak gara".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

"12 urteko neska batek kontatu zigun egunero ateratzen zela etxeko balkoira, bere burua botatzeko asmoak tentatuta, eta bazekiela etapa bat zela eta maite duen jendea zuela inguruan, baina momentu horretan kosta egiten zitzaiola ikustea zeintzuek maite zuten. Gustuko zituen esaldiak idatzi eta bere mugikorren atzealdean jarri genituen, behar zuenean indarra eman ziezaioten. Bi astera, ikaslea etorri zitzaigun esatera txartel horrek ez zuela funtzionatzten. Halako batean, konturatu nintzen eskumuturreko pila bat zeramatzala, eta pultsera berde batzuk egin genituen (esperantzaren kolorea, berak esaten zuelako esperantza zuela etapa hori igaroko zela) eta eskumuturreko bana jantzi genuen berak, tutoreak, amak eta nik, berarekin gintuela gogoratzeko. Eta hemen jarraitzen dut, eskumuturrekoa

soinean. Dagoeneko hiru urte pasa dira, ikaslea institutuan dago orain, eta esana digu une haietan baliagarria izan zitzaiola, balkoira irten eta pultsera ukitzen zuela; urtebete inguru daramala pentsamendu horiekin balkoira atera gabe". Ibane Basetak kontatu digu historia. Lehen Hezkuntzako aholkularia da Gasteizko Lakuabizkarra eskolan.

Horrelako historien atzean inplikazio, jarraipen eta akonpainamendu handia dagoela ere azaldu digu Basetak; tutorea astero elkartzen zen neskatoarekin, Baseta bera ere sarritan, udako oporretara laneko telefonoarekin joan zen eta tutoreak eta berak bi egunetik behin deitzen zioten neskari eta familiari. "Familiak nahikoa diru lortu ahal izan zuenean alaba psikologo pribatura eramateko, neskak adierazi zuen ez zuela bakarrik joan nahi, baina amak ezin zion lagundu, ezin zuen lana utzi, eta gu egoten ginen harekin eskola

ostean, guk laguntzen genuen tranbian psikologoarenera, guk jasotzen genuen ondoren... Oso potentea izan zen, behin tutoreak larrialdietan amaitu zuen, ansietateak jota".

Ibane Basetaren hitzetan, ez gaude horri guztiari aurre egiteko prestatuta, ez ikastetxeak, ez gizartea oro har: "Suzidioda prebenitzeko protokoloaren arabera, kasu bat identifikatzen dugunean Osakidetzako Haur Psikiatria Unitatera bideratu beharko genuke, baina ez daukate nahikoa langile haur guztiak artatzeko. Gizarte langileak berdin, saturatuta daude. Erraza da esatea 'nire ordutegia egingo dut eta etxera noa', baina lehenago sartzen gara, berandu atera, gizarte zerbitzuetako telefono pertsonalak ditugu, oporretara laneko telefonoarekin goaz... Hartu ditugun ohiturak ez dira egokienak, baina pertsonak gara, eta azkenean gainezka egiten digu hainbat kasuk".



Ibon Urizar Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Osasun emozionaleko arduraduna da Gasteizko Ekialdea institutuan, eta bera ere markatuta utzi dute kasu batek baino gehiagok. 13 urteko ikaslea du gogoan, sexu eraso baten biktima: "Hain zaurgarri, gertatu zitzaiona niri kontatzen, barruan zuen min izugarria, eta horren ostean ulertzea ikasle horren jokabide batzuen zergatia. Zeinen gogorra, eta aldi berean, zelako oparia, hori dena kontatu dizunean ate izugarri bat zabaltzen delako". Orokorrean, ongizate emozionala ez da ona, dio Urizarrek: "Gizartearen isla gara eta jendea ez dago ondo, bada, eskolan berdin".

Iñaki Auzmendi orientatzailea da Murgiako Lanbide Heziketan, eta bera ere galdetu diogu zein kasuk kolpatu duen gehien. "Dardarka izan ditut DBHko ikasleak aurrean, beren bizipenak kontatzen, eta bulego honetan hiru kuter batera izatera ere iritsi naiz, gainean zeramaten hiru ikasleri kenduak. Ikus-tea pixkanaka, jarritako laguntzei esker, ateratzen doazela, lagun sare bat dutela, dagoeneko ez dutela kuterrrik behar, horri guztiari esker ikasketetan ere aurrera egiten dutela... Horrekin geratzen naiz". Eta bai, Auzmendik ere uste du osasungintza kolapsatuta dagoela eta baliabide gehiago behar direla; "baina dena ematen duen jende inplikatu asko ezagutzen dut". Baita erreta bukatu duen jende asko ere: "Hainbatetan frustragarria baita, saiatu arren ez dugulako nahi genuena lortu, eta egun batzuetan leher egin da bukatzen dugu, motxila hori etxera daramagu, karga emozional handia da".

IRAKASLEEN ROL "BERRIA"

"Eskolak gero eta ardura gehiago hartzen ditu eta hau ere eskolara iritsi da, baina ezjakinak gara horretan eta zailtasunak ditugu halakoak kudeatzeko, egoera konplexuan jartzen gaituelako", azaldu digu Ibon Urizarrek. Suizidio protokoloak irekitzeari, esaterako, beldurra dio askok, ardura handia delako, eta bere kasuan, DBHko irakasleak direlako Biologia, Euskal Literatura edo beste graduren batetik iritsitakoak, "ez daude halakoe-tarako prestatuta". Behar bezalako formakuntza aldarrikatu du; azken finean, irakaskuntzaren bidea hautatzen duenak panorama hori aurkituko du ikasgeletan, eduki akademikoen irakaskuntzatik harago doazen funtzio eta roletan trebatu beharko du, oso garbi baitute hezitzaile denek: ikasleak ezin die eduki kognitiboei heldu, emozionalki ongi ez badago. "Gure

ikasleak dira eta neurri batean guri ere badagokigu horretaz arduratzea, osotasunean hezi behar badugu hau ere osotasun horren parte baita".

"Suizidioa prebenitzeko protokoloaren arabera, kasu bat identifikatzen dugunean Osakidetza Haur Psikiatria Unitatera bideratu beharko genuke, baina ez daukate nahikoa langile haur guztiak artatzeko"

Ibane Baseta, LH

Hori bai, lasai dagoela dio Urizarrek, eskolan ahal dutena egiten dutelako eta ikaslearentzat hor egotea bera ez delako gutxi. "Dena ez dago gure esku, eta eskoletan, ditugun baliabide eta formazioarekin, asko egiten dugu. Irakasle berri bat datorrelarik, horixe bera adierazten diot: entzutearekin asko egiten ari gara, ikasleen portzentaje altu batek ez baitu beste toki eta egiturarik bere kezka eta arazoak partekatzeke, egiten dugun euskarri eta aldamio lan hori funtsezkoa da".

"Dena ez dago gure esku eta entzutearekin asko egiten ari gara, egiten dugun euskarri eta aldamio lan hori funtsezkoa da"

Ibon Urizar, DBH

Osasun emozionalari arreta handiagoa eskaintzen dion hezitzaile rol honen inguruan mintzatu da baita ere Ibane Baseta: "Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailetik eta Berritzeguneko bizikidetza mintegietatik esaten digute umeekin ez dugula terapia egin behar, drainatze emozionala baizik, gero profesionalengana bideratzeko, alegia, entzun egin behar dugula. Baina gero zer egin informazio horrekin guztiarekin, Osakidetza, gizarte zerbitzuak eta zerbitzu publikoak gainezka baldin badaude? Funtsean, psikologo lana egin behar dugu, eta formakuntza jasotzen dugun arren, ez gara horretan profesionalak. Suizidio protokoloan ikasleei egin beharreko galderen erantzunak entzuteko prest egon behar duzu, adibidez, eta poker aurpegia mantendu, ezin diozu esan halakorik ez pentsatzeko, ezin diozu aholku okerrik eman... Ez da erraza, drainatze emozionala egiteko esaten digute, baina nork egiten du gure drainatze emozionala?".

ZER KONTATZEN DUTE IKASLEEK?

Ikasleren bat gaizki pasatzen ari bada, antzemateko bide ugari dituzte ikastetxeek. Banakako tutoretzak funtsezkoak direla diote gure solaskideek, eta eskoletako BAT Bizikidetzaren Aldeko Taldeak ere egiten du bere lana, nahi duenak haiengana jo dezan edo ikastetxean dauden buzoi berezien eta emailen bidez dituzten kezak azaleratu ditzaten. Eta bai, ikasleak gerturatu gerturatzen dira tutore, irakasle, orientatzaile edota aholkulariengana, konfiantza gehien transmititzen dien horrengana, "beharra dutelako".

Norbere buruaz bakarrik ez, baten bat gaizki ikusten dutela adierazteko ohitura ere badute ikasleek, tutoretzetako galdera bat izaten da, gainera: "Baten bat gaizki ikusten duzu eskolan?". Denetarik kontatzen dute haur eta gazteek: kide batekin duten gatazka, etxeko egoera, jazarpena jasaten ari direla edo ikusi dutela... "Txikieneke filtrorik gabe azaltzen dute, esplizituki eta garden-garden". Bazterkeria kasuak nabarmendu dituzte solaskideek, eta bai Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan, ziber munduari loturiko eraso eta jazarpen gero eta gehiago antzematen dituztela ohartarazi dute. "Sare sozialek gatazken areagotzea ekarri dute, espazio opaku bat sortzen delako eta darabiltzaten kodeek ihes egiten digutelako helduoi. Komunikazioak biderkatu egiten dira eta emozioak ere bai, gainera gorputz adierazpena galtzen da", azaldu du Ibon Urizarrek.



“Lanbide Heziketako oinarrizko mailara datozen ikasle ugari bereziki zaurgarri datoz, hezkuntza sisteman porrot egin dutelako, eta kaltetua dute autokontzeptua”

Iñaki Auzmendi, Lanbide Heziketa

Gure arteko harremanak aldatzen ari direla uste du Ibane Basetak: aurpegira bota orde, iraintzeko eta atzetik jarduteko sare sozialak erabiltzen direla dio, eta aurrez aurre bestelako moduak erabiltzen direla mina emateko. “Presentzialki, modu isilago eta sibilinoago baten bidez, ahozko komunikaziorik gabe, bazterkeria eta mespretxua adierazten dute, adibidez norbere aulkia nahita ikaskidearengandik urrunduta”. Etxean indarkeria edota babesgabetasuna jasaten dutenak, gainera, bazterkeriarako eta jazarpenarako jomuga izan ohi dire-

la kontatu du. “Oinarrian, denek kezka antzekoak partekatzen dituzte eta lotuta daude lagunak egiteari, sozializatzeari, lagunarteko gatazkei...”.

ESKUTIK HELDUTA JOATETIK OIHANERA

Nerabegarora bidean direnen inguruan mintzatu zaigu Urizar: “Gatazka gehienak, ziber munduari lotuta, DBH 1-2n ditugu. 12 urteren bueltan, Lehen Hezkuntzan kasik eskutik helduta edukitzetik oihanera datoz: irakasle eta ikasle berriak, harreman berriak, gehienek dagoeneko mugikorra, emozio saltsa, hormonak eta maitasun kontuak, etxean egon daitezkeen arazoak, DBHren exigentzia akademikoa... Ez dago hori guztia kudeatuko duen neraberen burmuinik. Helduok ere hortik pasa ginen, baina ahaztu dugu”.

Lanbide Heziketako oinarrizko mailara doazen ikasle ugari berriz, bereziki zaurgarri datozela azpimarratu du Iñaki Auzmendi, horietako askok hezkuntza sisteman porrot egin dutelako, eta kaltetua dute autokontzeptua: “Autoestimubaxua izateak eragina du osasun emozional eta psikologikoan, eta sarri erabaki okerrak hartzera eraman zaitzake, droga kontsumora adibidez. Sorgin-gurpila da, betetzen den espektatiba”.

Eta errepikatzen den arazoa: autolesioak. “Adin nagusiagoetan mozketak ikusten ditugu eskumuturretan edo izte-

rretan, eta umeago direnen artean, frustrazioaren aurrean mahaiaren, lurraren edota paretaren kontra beren burua kolpatzen”, kontatu du Basetak.

ENTZUN ETA EZ EPAITU

Ikastetxeko arnagune edota erlaxatzeko gelak aukeratu ohi dituzte, ikasleekin lasai hitz egiteko, espazio seguru eta goxoak, eta bilerak konfidentziala dela esaten diete, baina zerbait larria kontatuz gero, agian laguntza eskatu beharko dutela. Maiz, ikasle horiek behar dutena modu aktiboan entzunak izatea dela dio Urizarrek, eta helduaren jarrerak berebiziko garrantzia duela: “Batuetan helduak gaineratik jartzen gara, nerabeak aurreiritzietatik ikusten ditugulako edo pentsatzen dugulako nerabearen arazoak ez direla arazo, arazoak gero etortzen direla, ‘eman elkarri eskua eta kito, konponduta’; baina entzun beharrean lau aholku merke botatzea ez da soluzioa. Hori izugarri landu dugu ikastetxean, ikaslea inportante sentitzea, bere kezak jasoak direla sentitzea”. Beste gako batzuk: “Transmititzea edozer kontadiezaguketela eta ez ditugula epaituko –dio Basetak–, eta zintotasunez eta gardentasunez jokatzeko, batuetan gai tabuak direla eta haurrei horretaz ez mintzatzea onena dela uste dugulako, baina hobe da suizidioaren edo dena delakoaren inguruan esan beharrekoak guregandik jasotzea, beste bide batzuetatik baino”.

“Ezin diozu esan halakorik ez pentsatzeko, ezin diozu aholku okerrik eman... Ez da erraza, drainatze emozionala egiteko esaten digute, baina nork egiten du gure drainatze emozionala?”

Ibane Baseta, LH

Auzmendik dio berak zortea duela, Lanbide Heziketak zentroa ez dela handia (250-300 ikasle inguru) eta arreta nahiko pertsonalizatua eman diezaiekeela ikasleei, beste zentro batzuetan ezinezkoa dela, ikasle gehiegi eta orientatzaile gutxiegi dagoelako. Gazteekin dituen solasaldiez zera dio: “Ikasleari galdetzen badiot ea frustratuta edo desmotibatuta dagoen, agian ez daki zer esan nahi duan ere, edo ez du horretarako erantzunik, gaizki dagoela baino ez daki. Entzun egin behar dut, hor nagoela ikusarazi, ez epaitu, galderak modu jakin batean egin, harekiko lotura lortu... Gertatzen zaiena ulertzen saiatzen naiz”.

ENTZUN ONDOREN, ZER?

Kasuaren jarraipena, ikasleari akonpainamendua, eta koordinazio, sare, kolaborazio eta zubi-lana, eskola komunitateko eragileekin nahiz bestelako erakunde, gizarte-zerbitzu eta osasun arloarekin. Horiek esku-hartzeko gakoak, solaskideen hitzetan. Berez, protokoloak dituzte ikastetxeetan, “denetarako protokoloak”, eta tresna onak direla diote, arazoari aurre egiteko modua sistematizatzen dutelako eta aferaren ikuspegi orokorra ematen dutelako, kontuan hartu beharreko arlo guztiak mahai gainean jarrita. “Baina protokoloak, lana erraztu beharrean, hezkuntzaren kasuan zaildu egiten du, 200 orrialdeko protokoloak ditugulako, oso burokratikoak, sekulako lana eskatzen dutenak, eta fitxak betetzen bukatzen dugu; zenbat protokolo kudeatu daitezke



ikastetxe batean?”, kritikatu du Urizarrek. Ideia ona dira, baina praktikan ez dago baliabiderik egoki egiteko, uste dute bai berak eta bai Basetak. Beste kezka bat ere agertu du DBHko orientatzaileak: “Protokoloen bidez ez gara muinera heltzen, oso gutxi eta lauso hitz egiten da, adibidez, emozioez, eta hori akats larria da”.

Dagoeneko ikastetxeetan ezagun duten protokoloa, bullyingaren aurkakoa da. Behaketa egitea eskatzen du protokoloak, ikuskaritzarekin harremanetan jartzea, familiekin hitz egitea. Bakarkako eta taldekako tutoretzak nabarmendu ditu Lehen Hezkuntzako aholkulariak, eta taldean solastatzea interesgarria dela adierazi du: “Gaia dagoeneko mamitua dute ikasleek, eta jazarpen kasu zehatzen aurka taldearen indarra lortzen dugu”. Ekialdea institutuan, alde biekina bakarka aritzen direla azaldu digu DBHko orientatzaileak, eta une batean elkartzea eskatzen dietela: “Hasieran ez dute nahi izaten, amorrua dela edo erru sentimendua... baina momentu bat iristen da baietz, egoera irauli nahi dutelako; elkarri entzunez konpromiso batzuk bilatuko ditugu eta aurrerago berriz biltzeko beste egun bat adostuko dugu”.

Beldurra eta alarma pizten duen protokolorik bada, suizidio protokoloa da

hori, baina tamalez, gero eta ohituago daude ikastetxeetan urtero halakoak aktibatzen, eta ez bat eta ez bi. Batzuetan nahasmendua dago, protokoloa martxan jartzeko zantzuak benetan zein diren eta ikaslearekin hitz egiterakoan nola jokatu behar den. Suizidio protokoloari jarraiki, ikasleari zazpi galdera egiten zaizkio: “Azken hilabeteetan zure buruaz beste egitea pentsatu duzu? Nola egingo zenukeen pentsatu duzu?...”. Haren pentsamenduak balioztatu eta dagokien arloetara bideratzea da teoria, baina praktikan, azaldu bezala, inplikazio, akonpainamendu eta koordinazio handia eskatzen du hezitzaileentzat.

Suizidioari lotuta, Lanbide Heziketak berariazko protokolo bat behar duela aldarrikatu du Auzmendik, adituek ere berretsi dutela eta hala adierazia diotela administrazioari. “Ez da gauza bera suizidioaz hitz egitea Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, edo Lanbide Heziketan. Besteak beste, adinagatik edota erremintak dituztelako eskura. Praktikak egitera doaz enpresetara eta estatistikek eurek diote lan heriotza gisa identifikatutako batzuk suizidioak direla”.

FAMILIAK, ALIATU

Gatazkaren batek eztanda egiten duelarik,



“Lehenengo aste osoan ez dugu eskolarik ematen, talde kohesioan zentratzen gara, elkarrekin lan egiten duen talde bat eta sare sendo bat helburu. Etorri daitezkeen gatazkak sare sendo horretara erortzen badira, errazago bideratuko ditugu”

Ibon Urizar, DBH

ikasleen familiekin elkarlanean aritzea bilatzen du eskolak. Bilera batzuk zailak direla dio DBHko orientatzaileak, baina kolaborazio esparruak sortzen dituztela, denok ondo egotea helburu. “Ideia suiziden kasuan, oso bortitza da telefonoz gurasoei azaltzea zergatik etorri behar duten eskolara, eta emozionalki aztoratuta etorri ohi dira, nahikoa *shock* izaten da, baina emango ditugun pausoak ongi azalduta, lasaia doaz etxera. Bilera luzeak dira, beraiek etxean ikusitakoa ere ongi datorkigu, informazio trukea”, kontatu du Basetak. Bullyingari lotuta berriz, “biktimaren familiek erraz ikusten dute, etxean askotan jada esana duelako; ustezko erasotzaileekin zailagoa da, familia batzuek

ikusten dute eta beste batzuek ez, gurasoek taldearen gain jartzen dute ardura eta seme-alabak taldea jarraitzen duela diote... Lanketa zailagoa izan daiteke”.

Kontuak kontu, gatazkei eta arazoei aurre hartu asmoz, prebentzioan jartzen dute indarra ikastetxeek. Dela, lehen esan bezala, zerbaitek huts egiten ote duen dektatzeko, dela harreman osasuntsuak sustatzeko. Balioei lotutako tailerrak, ziberbullyingari buruzko ikastaroak, tratuen inguruko lanketa, genero biolentziari lotutako dinamikak, terapia okupazionala auzoko zentzura bisita... aipatu ditu, besteak beste, Lehen Hezkuntzako aholkulariak. Eta azpimarratu du talde kohesiora bideratzen dutela ikasturte ha-

siera, “talde hori delako gero babestuko zaituena”. Antzera mintzatu da Bigarren Hezkuntzako orientatzailea: “Prebentzioa da gelan giro jakin bat sortzea, elkar zaintzaren kultura eraikitzea, ikasgelako helduaren jarreratik hasita. DBH1 eta 2n adibidez, lehenengo aste osoan ez da eskolarik ematen, talde kohesioan zentratzen gara, harremanen eta elkarbizitzaren mesedetan. Elkarrekin lan egiten duen taldea badugu, parte-hartzea normalizatzen duena, arau eta mugak adostuta eta barneratuta dituena, prebentzioan asko egin dugu, horrek guztiak sortzen duela sare sendo bat, eta etorri daitezkeen gatazkak sare sendo horretara erortzen badira, errazago bideratuko ditugu”. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

DUTXA MISTOAK UDALEKUETAN

Sentsazionalismo gabeko hausnarketak

Euskal Udalekuetan genero binarismoa desagerrarazteko eta biluztasuna normalizatzeko erabili dituzten dinamikak salatu dituzte zenbait gurasok. Prentsa eta alderdi politiko kontserbadoreek kriminalizazio kanpaina abiatu dute, morboa, transgorrotoa eta alarmismoa elikatuz. Horren aurrean, sakoneko analisia landu dugu adituekin, ezinegonak aitortuz, irakaspenak atera nahian.

Artikulu hau *Pikara Magazine* hedabideak urriaren 1ean argitaratu zuen pikaramagazine.com webgunean.

 JUNE FERNANDEZ / PIKARA MAGAZINE CC BY-SA

Begiraleak biluzik zebiltzan eta gure seme-alabekin dutxatzen ziren udalekuan". *El Correo*-ren lerroburua da, Espainiako Estatu mailan zalaparta mediatiko izugarria piztu duena. Azpтитuluan jasotzen da Ertzaintza ikertzen dabilela Bernedoko (Araba) udalekuan 13 eta 15 urteko neska-mutilek bizitako "infernua". Testuan irakurriko dugu Bernedoko Udalak jo duela poliziarengana ebazteko gertatutakoa delitu den.

RTVEk zehaztu duenez, gaur-gaurkoz lau salaketa jaso ditu Ertzaintzak Euskal Udalekuetan "sexu askatasunaren aurkako ekintzengatik": "Lehenengoa abuztuan jarri zen, 2021ean eta 2022an Abaigarreko (Nafarroa) udalekuetan eta 2023an eta 2024an Bernedon ustez gertatutakoengatik. Beste hiru salaketak joan den ostiralean jarri ziren Laudioko, Gasteizko eta Deba-Urolako ertzain-etxeetan", azaldu du hedabide publikoak.

El Correo-ra jo zuten gurasoen kexa nagusia da Sarrea Euskal Udalekua elkarteko arduradunek ez zutela ohartarazi dutxa mistoen aldeko apustua eta zenbait neska "traumatizatuta" atera zirela, eta arreta psikologikoa behar izan dutela. Haien kontakizunaren arabera, emakumezko begiraleak "titiak airean" ibiltzen ziren sukaldean eta igerilekuan. Abuztuaren amaieran Denuncias Euskal Herria Instagram kontuan agertu zen ama baten lehenengo kexa:

"Izena emateko prozesuan ez zaigu eman udalekuaren funtzionamenduari berri, eta nire alabari ez zaio aukerarik eman egonaldian zehar bere gorputzari buruz erabakitzeke. Begiraleen erantzunean ez da sexuaz hitz egiten, generoaz bakarrik baizik; beraz, ez dute kontuan hartzen sexuaren errealitate biologikoa. Praktika horiekin guztiekin, nerabeentzako arrisku-egoerak sustatu dituzte, biluzik dutxarazi baitituzte

mutilekin batera (...) adin zailean, eta beldurgarria da gerta zitekeena. Salagarria dela uste dut".

Zuriñe Ojeda komunikatzaile feminista transgorrotatzaileak iritzi artikulua argitaratu zuen irailaren 4an *El Común* hedabidean, ama bat berarekin harremanetan jarri ondoren. Ojedaren Instagrameko kontuko biografian "Encuéntrame los pronombres en el txotxo" jartzen du -topa itzazu nire izenordainak pototan-, eta J.K. Rowling-en argazki ikonikoa argitaratu zuen -puroa erretzen yate batean- ospatzeko Erresuma Batuko epaitegiek emakume transei ukatu dietela emakume estatusa legeari begira. *La pesadilla de un campamento de verano* artikuluan -Udaleku bateko amesgaiztoa- kontatu zituen Ojedak gerora *El Correo*-k errepikatutako zenbait detaile, esaterako, Bernedoko eraikineko marrazki batean neska bat agertzen zela hankak irekita "on egin" esaldiare-



EUSKAL UDALEKUAK

Dutxa mistoei eta biluztasunari dagokionez, Euskal Udalekuek azaldu dute haien proposamen "politiko eta etikoa" transfeminismoan oinarritzen dela. Argazkian, Bernedoko udalekuak.

kin. Gaineratu zuen sexu jazarpen kasu bat egon dela eta begiraleek protokoloa "bi aste berandu" aktibatu zutela.

Bigarren artikuluko batean zabaldu zuen Ojedak Gipuzkoako Foru Aldundiak azpikontratutako enpresa bateko hezitzaile baten testigantza: iazko udan tutelapeko haurrak Bernedora eraman zituela, begiraleak hurrekin batera biluzik duxatzen zirela eta jolas batean hezitzaileari behatza miazkatu behar ziotela. Gipuzkoako Foru Aldundira jo omen zuen lehendabizi hezitzaileak eta Ertzaintzarengana ondoren. "Queer erlijioa"ren "doktrina"ren albo-kaltetzat aurkeztu zuen kazetariak gertatutakoa.

Artikulu horietatik abiatu zen *El Correo* eta egunkari honen urratsak jarraitu zituzten Estatu mailako beste hedabide askok. Orduan, Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundietako ordezkariak sartu dira eztabaida mediatikoan, eta baita euskal fiskal nagusia ere, Carmen Adán, azken honek deitoratzeko Gasteizko epaitegi batek ez dituela tramitatu aurreko urteetako salaketak. Epaitegiaren erantzuna izan da Bernedora joan ziren hiru adingabe deklaratzera deitzea. Abogados Cristianosek atzo bertan [irailak 30] iragarri du Euskal Udalekuetako arduradunen kontrako salaketa jarri duela, "exhibizionismo delitu posible batengatik".

Pasa den ostiralean zabaldu zuen Euskal Udalekuak kudeatzen dituen elkar-

teak bere erantzun publikoa. "Une oro egon gara gurasoekin harremanetan, eta beti eman dizkiegu erantzun indibidualizatuak haien behar eta kezkei", nabarmendu dute. Aitzitik, gaitzetsi dute "zabalpen mediatikoan sentsazionalismoa eta morboa sustatu" direla, "barne-komunikazioko elkarrizketak argitaratu" dituztela eta "komunikazio-bide pribatu zein publikoetatik hezitzaileon aurkako mezuak, erasoak eta difamazioa helburu zuten diskurtsoak jaso" dituztela, neurri handi batean kutsu transfobia dutenak.

"Une oro egon gara gurasoekin harremanetan, eta beti eman dizkiegu erantzun indibidualizatuak haien behar eta kezkei"

Bernedoko Euskal Udalekuetako begirale bat

Difamazioen artean aipatu dute haurrak medikuarengana ez zituztela erama- ten edota umeak gurasoengandik isolatu

izana. Udalekuetan ohikoa den politika azaldu du elkarteak: parte-hartzaileei jakinarazten diete ezin dituztela mugikorrak erabili, baina gurasoekin deia eskatu dezaketela behar izanez gero.

Dutxa mistoei eta biluztasunari dagokionez, azaldu dute haien proposamen "politiko eta etikoa" transfeminismoan oinarritzen dela: "Inposatutako binarismoa zalantzan jartzen du, gorpuzten normalizazioa bultzatzen du eta ingurune bizigarriagoak eraikitzen lagundu nahi du", "identitate eta gorpuz guztientzako gune seguruak" sortzeko helburuarekin. Hala, dutxa "higienarako leku soil izateaz harago, gorputz guztiak normalizatzeko, estigmak apurtzeko eta lotsatik eta sexualizaziotik askatzeko aukera bat dira (...) alde aurretiko genero-identifikazio beharrik gabe", gaineratu dute. Halaber, nabarmendu dute haur eta gazteei berariaz azaltzen zaie la proposamena eta dutxak gainbegiratu eta zaintzen dituztela: "Ez dugu inor behartzen besteen aurrean biluztera, eta akonpainamendua eta alternatiba pertsonalizatuak eskaintzen ditugu".

13-15 urteko txandako begirale batek zehaztu dizkigu dutxak gune seguru izateko neurriak: mistotasuna taldearekin adosten da lanketa egin ondoren; baka- rrik edo bainujantziarekin dutxatzeko hautuak errespetatu dira; bi begiralek gainbegiratzen dituzte txandak; anto-

laketan kontuan hartzen da mutilak gehiengoa ez izatea neskak zaurgarri sentitu ez daitezen; eta udalekuan antolatzen dituzten “tertulietan” –haurrek edozein motatako gatazkak, zalantzak eta ezinegonak adierazteko espazioa– esplizituki ateratzen dute dutxen gaia. Hausnartu du dutxa segregatueta ere zapalkuntza egoerak eman ahal direla, beste botere ardatzek eragindakoak, hala nola lodifobia edo homofobia. Ez du azalpenik eman Ojedok aipatutako sexu erasoari eta bere kudeaketari buruz.

Helduen biluztasunari buruz, komunikatuan adierazi bezala, berretsi du dutxen kasuan helburua dela taldea gainbegiratzea eta zaintzea, eta toplessa aukera bat dela gizonezko begiraleentzat den neurrian. Edonola ere, nabarmendu du ez dagola inolako jarrera edo asmo lizunik. Azkenik, adierazi du elkarteak ez duela orain arte epaitegieta notifikazioirik jaso.

Bernedora umeak eramandako guraso askok hedabide eta sare sozialetan adierazi dute hezitzaileekiko aitortza eta konfiantza osoa. Naiz.eus-ek webgunean familien iritzi artikulua argitaratu du Euskal Udalekuen proiektua goraipatzen. 137 gurasok sinatutako artikulua hainbat hedabidetan kaleratu da, argia.eus-en adibidez: “Ez gaituzte diskurtso faltsu, bortitz eta erreakzionarioekin nahastuko. Zuekin gaude. Ez izan zalantzarik”, ohartarazi dute. Ildo beretik, hurrengo mezua idatzi du 11 urteko neskaren aita batek eldiario.es-en:

“Desfasatuek eta erreakzionarioek nahi bezala jokatzten duten une honetan, ezinbestekoa iruditzen zait gune horiek

egotea umeentzat, gure belaunaldiko helduok erakusten dieguna baino modu osasuntsu eta irekiagoan bizi ahal ditzaten beren gorputzak eta harremanak. Penagarria eta etsipengarria iruditzen zait Bernedon gertatutakoa haurren babesgabetasun eta sexu-indarkeria gisa planteatzea. Nire alabak, jakina, ez du ulertzen zergatik Euskal Herri osoko lagunekin 15 egun zoragarri igaro ondoren, oso seguru sentituta eta gazte-talde batek ondo zainduta, sexu-indarkeria gisa aurkeztu den”.

Miriam Alemani
(LGTBIfobian eta sexu-
hezkuntzan trebatzailea)
funtsezkoa iruditzen zaio
pedagogia transfeministak
abiatzeko prozesuetan
familiei bizkarra ez ematea
eta normatibitate berriak ez
inposatzea

Pikara Magazine-k hurrengo lagunen-gana jo du gaia sakonean jorratzeko, ez zehazki judizializatu diren salaketak, baizik eta atzean dauden zenbait galdera: nola uztartu nerabeen gorputz autonomia eta nesKentzat espazio seguruak

genero binarismoa gailentzeko egitasmoekin? Pedagogia transfeministetan, sexu heziketan, sexologian, indarkeria matxistetan, LGTBQA+fobian eta haurren eskubideetan aditu direnekin hitz egin dugu.

EZINEGONAK AITORTU, EUSKAL UDALEKUAK DEFENDATU

“Gertatutakoak ez du Euskal Udalekuen hezkuntza-ereduaren porrota islatzen, proiektu eraldatzaile baten eta testuinguru sozial baten arteko tentsio kulturala baizik”. Hori da Hiruki Larroxaren ondorio nagusienetariko bat. Pedagogia feministak eta sexu-hezkuntza ardatz dituen kooperatiba honek azpimarratu du “Euskal Udalekuak hezkuntza ez-formalaren, aisialdi hezigarriaren eta euskal kulturaren ondare historiko” direla, eta “Euskal Herrian zilegitasun sozial handia” dutela. Hala, elkarte honen “funtsezko zeregin hezigarri, sozial, kultural eta politikoa” aitortu du kooperatibak eta gurasoen kexen “instrumentalizazio mediatikoa” gaitzetsi du, hedabide jakin batzuen “narratiba alarmista eta moralistak”, baita “susmo, difamazio, seinalamendu zuzen eta kontrol sozialetan oinarritutako kontakizun bat eta bakarra ere”.

Hala, Euskal Udalekuen pedagogia askatzaile eta feminista goraipatu dute, zeinak “genero-zatiketa zurrunik gabeko bizikidetzak, gorputzen naturalizazioa eta taburik gabeko harremanen aldeko apustua egiten” duen. Aitzitik, onartu dute dutxa mistoak bezalako “asmo handiko” proposamenek “aldez aurreko prestakuntza-lan sistematikoagoa es-

HEZITZAILEEK ARGITU DUTE EZ DUTELA “ERASO SALAKETARIK” JASO

Pikara Magazine-k June Fernandezek artikulua urriaren 1ean argitaratu zuen eta urriaren 3an Euskal Udalekuek eta mugimendu transfeministak agiri bana argitaratu zuten.

Euskal Udalekuek hezitzaileek, agerrialdi jendetsuan, asteotako jazarpena eta difamazioa salatu zituzten, “lintxamendu pertsonaletara” ere iritsi dena, eta argitu

zuten ez dela eraso salaketarik izan momentuz. Dena den, argi utzi zuten edozein eraso “erabat” gaitzesten dutela, eta beren artean erasotzailerik balego, jakinaren gainean egon nahiko luketela, “neurriak hartzeko eta beste ezeren gainetik, erasoak jasan duen pertsonaren aldean kokatzeko”.

Erasoak nola lantzen dituzten azaldu zuten: “Protokoloak dauzkagu, lanketa feminista egiten dugu hezitzaileok, eta haur eta gazteekin ere lantzen dugu gaia”. Era berean, beren ereduaren “etengabeko lan-ketan eta barne hausnarketan” jarraituko dutela azaldu zuten, “elkarbizitzako espa-

zioek deserosotasunak sortzen dituztela” jakitun, egoera horiek “ahalik eta ondoen zaintzen” saiatzen direla ziurtatu zuten.

Mugimendu transfeministak, berriz, Euskal Udalekuen aurka eskuinak abiatutako lintxamendua salatu zuen. Mugimenduaren ustez, Bernedoko udalekuen inguruko gezurrak hedatu dituzte eskuin muturrak eta sektore erreakzionarioek. “Lintxamendu kanpaina” eta “eraso antolatua” olatu erreakzionario orokorrako baten markoan kokatu zituzten. Sexu-genero disidentzia haurren aurkako erasoekin lotzea salatu zuten. Udalekuek begiraleei elkartasuna eta babesa adierazi zieten.



Euskal Udalekuetako hezitzaileek agerraldi jendetsua egin zuten urriaren 3an, Bergaran. Azaldu zuten edozein eraso "erabat" gaitzesten dutela eta prest agertu ziren, beren artean erasotzailerik balego, "neurriak hartzeko".

katzen dutela familiarekin eta gazteekin", baliabide asko eskatzen duena: "Konplexutasun horretan datza, seguruenik, gertatutakoaren zati handi bat".

Hala, haien irakurketa da proposamen horrek talka egin duela udalekue-tako parte-hartzaile batzuek eta haien familiek duten gorputzari, intimitateari eta sexualitateari buruzko paradigma kulturalarekin. "Ondorioz, ondoezak eta tentsioak agertu dira; horiek indarkeria- edo abusu-egoeratzat hartuz". Azpimarratu dute bizipen horiek "aitortu eta entzun egin behar" direla, ulertuta familiek eta nerabeek "trauma pertsonal, interpertsonal eta sistemiko" ugariko testuinguru sozial batean eta balore jakin batzuetan heziak izanda, "desorientazioa eta ezustea" sentitu ditzaketela halako praktiken aurrean.

Hortaz, Hiruki Larroaren mezua da pedagogia transfeministen apustua sendotzeko "gertatutakoa zuhurtasunez, sentsibiltatez, entzute aktiboz eta segurtasun-bermez" lantzea. Bide horri ekiteko, hedabide kritikooi erraztu di-guten testuan lau ildotan egituratutako neurriak gomendatu dituzte: prebentzioa eta kontzientziazioa; hezkuntza-eragileen prestakuntza; bidelaguntza eta pedagogia komunitarioa; aliantza eta sareak sendotzea.

"TRANSFEMINISTON AKATS BAKOITZA ANPLIFIKATUKO DUTE"

Miriam Aleman Calatayud indarkeria matxistetan, LGTBIfobian, sexu-hezkuntzan eta eskola-jazarpenean trebatzailea eta aholkularia da Kataluniako Candela kooperatiba feminista komunitarioan. Bere kezketako bat da nola transmititzen diren diskurtso eta praktika feministak nerabeen hezkuntza-testuinguruetan, egun bizi dugun polarizazio handiko testuinguruan non, gainera, hainbat korrante feministaren paradigmen arteko talka handia azaleratu den: prosex deitutakoa batetik; eta transbartzertzailea ez ezik, sexu heziketa beldurretik eta esentzialismotik abiatzen duen korrante abolizionista, bestetik.

"Gertatzen ari denerako ekaitz perfektua da, eta transfeministok urakanaren begian gaude, begirada guztiak gainean ditugu. Gure akats bakoitza anplifikatu egingo da eta gure jarduna testuingurutik atera. Horregatik, arreta handia jarri behar dugu gure esku-hartzeetan. Ondo prestatu behar gara hezitzaile moduan, ez teoria batetik, pedagogietatik baizik. Leloak manifestarako utzi behar ditugu eta nerabeekin binkulua lehenetsi", hausnartu du. Ildo horretatik, "feminismoari buruzko tailerrak" egin baino, nerabeekin lanketa "modu feministan"

abiatzea defendatu du, haien sentipenak eta beharrak errespetatuz eta atzeraka eragin dezaketen diskurtsoak modulatu. Ildo horretatik, adierazi du disidenteak ez diren nerabeentzat genero identitateak pisu handia daukala eta, hortaz, binarismoari gain hartzeko politikek ez badituzte haien erritmoak eta desadostasunak aintzat hartzen, ezinegon handia eragin diezaieketela.

Hortaz, funtsezkoa iruditzen zaio pedagogia transfeministak abiatzeko prozesuetan "familiei bizkarra ez ematea" eta "normatibitate" berriak ez inposatzea. Candela kooperatibaren apustua da hiru komun eskaintzea: neskentzat, mutilentzat eta libre: "Baina taldean portaera matxistak dituzten neska-mutilak badituzu, komun librean sartuko dira. Beraz, ez da hainbeste zer komun ditudan, baizik eta zer talde dudan". Aipatu duen beste esperientzia bat da Candelak LGTBIQ udalekuak sustatu dituela, genero-disidenteek ahalduentze-espazioak izan ditzaten; horietan aplikatu ahal izango dira talde normatiboetan arrotzak izan daitezkeen dinamika.

Amen eta nesken kezak eta haurtzaroko sexu-abusua lotzen dituzten diskurtsoei dagokienez, hezitzaile horrek "erabilera instrumental bat" identifikatzen du, "klasiko homofobo" bat dena:

“sexu-indarkeria haurtzaroan kokatzen du, kanpoan, eta ez etxeetan, eta kuir-tasuna mehatxutzat jotzen du”. Save the Children erakundearen arabera, haurren kontrako sexu abusuetan 10etik 8tan erasotzailea ezaguna edo senidea da.

AURRETIAZKO KOMUNIKAZIO GARDENA

Violeta Assiegorengana jo dugu, abokatua, haurren eta emakumeen eskubideetan aditua eta *Pikara Magazine*-ko kolaboratzailea, ebazteko ea Bernedon identifikatutako praktika polemikoak delitu gisa hartu daitezkeen. Bere esanetan, gakoa ez da praktika jakin horiek epaitzea, baizik eta parte hartzaileen adostasun informatua eman den baloratzea.

Hala, espazio mistoetan biluztea naturalizatuta ez dagoen testuinguru sozial batean, batez ere pubertaroan, azpimarratu du dutxa mistoak bezalako neurri batek gurasoen edo tutoreen “aurretiazko baimena” eskatzen duela, patxadaz baloratu ahal izan dezaten pedagogia horrekin bat datozen ala ez, eta haurren bizipena ere kontuan izan dezaten. “Nahikoa elementu garrantzitsua eta berezia da, komunikazio guztietan argi gera dadin aldez aurretik, gardentasun-, informazio- eta elkarrizketa-printzipioen araberrako hezkuntza-proposamen baten barruan. Ezin dira udalekuan bertan ireki eztabaidagarriak izango diren praktikak”, azpimarratu du.

Estatu mailako zein Euskal Autonomia Erkidegoko legeek, haurren kontrako indarkeriari buruzkoek, baldintza batzuk ezartzen dizkiete adingabeekin lan egiten dutenei, izan erakunde publikoak, pribatuak edo elkarte autogestionatuak: “Protokoloak, espazio seguruak, abusuak hautemateko prestakuntza nahikoa duten hezitzaileak, egoera deserosoen berri izan dezaketen erreferentziazko pertsonak izendatzea...”. Ildo horretatik, “delikatua” iruditzen zaio Bernedon gertatutakoa eta oinarri juridikoa ikusten die salaketei, begiraleen eta parte-hartzaileen arteko adinaren araberrako harreman hierarkikoa kontuan hartuta. “Tal-de-presioa eta erreferente helduetatik urrun egotearen zaurgarritasuna aintzat hartu behar ditugu; ezetza emateko aukera badute ere, ez dute aukerarik haien ezinegona kontrastatzeko”, gaineratu du.

Azkenik, Alemanen ildotik, abokatuak mezu bat zabaltu du esku-hartze transfeministan heldukeria alboratzeko: “Ezin zaizkie eskatu nerabeei biluztasu-

na naturalizatzeak eta desexualizatzeak exijitzen dituzten arrazionalizazio- eta kontzientzia-maila: hor daude gorputzaren erreakzio erotikokoak eta lotsak. Halako proiektu pedagogiko feminista bat gara daiteke, alternatiboa, kuirra, baina aldez aurretik partaide bakoitzak gorputzarekin eta sexu-indarkeriarekin dituen arazoak detektatu behar dira, modu indibidualizatu batean”.

Hori dela eta, Euskal Udalekuak elkar-teari barne-autokritika egiteko deia egin dio, “lekuz kanpoko jardunak” aztertze-ko: “Eraso transfoboak eta espainolistak jasaten ari dira, zalantzarik gabe, baina hori ez da aitzakia gertatutakoa kritikoki aztertze-ko, [Santiago] Abascalek edo terfek diotena alde batera utzita”.

NERABE TRANSEN BIZIPENA

El Correo-k zabaldutako kontakizun horren ardatz bat izan da transfobia, enebefobia –pertsona ez-binarioen kontrakoa– eta kuirfobia zabaltzea. Ojedaren eta *El Correo*-ko testuetan Euskal Udalekuen hizkera inklusiboa (“categorizade”...) azpimarratzen da erdeinuz, sic. batekin markatuta. Are gehiago, egun horretan bertan, Vocento taldeko egunkariaren kontraportadan, *Ducha ideológica* izeneko testua idatzi zuen Pablo Martínez Zarracina zutabegileak, queer teoriaren inguruan ironizatuz eta sexu abusuen mamua astinduz. Euskal Udalekuen elkarteko kideek jaso dituzten erasoen artean nabarmendu da VOXeko ordezkariak euskal kulturaren oso ezaguna den pertsona ez-binario baten argazkia txiokatu izana: “pederasta” deitzeaz gain, bere genero-adierazpena seinatu dute susmagarri gisa.

Bea Sever sexologoa da ogibidez, Nai-zen trans familien elkarteko bozeramaila eta mutil trans baten ama. Erreportaje honetan bere izenean hartu du parte, ez elkartearen izenean, eta bere ibilbide naturistatik ere egin du ekarpena.

“Oso gizarte puritanistan bizi gara, sexualitatearekin lotutako dena oso modu alarmitan bizi duena eta beldurretik eta arriskuetatik bizi dugu, baita gure gorputza eta biluztasuna ere. Testuinguru horretan alarmak pizten dira berehala”, adierazi du hasteko. “Ez dakit zelan egin duten edo ez duten egin Euskal Udalekuan, baina ezinbestekoa da nerabeza-roan bizi diren lotsa eta gorputzarekiko arrotasuna errespetatzea. Eredu natu-ristetan [kanpinak, esaterako] 16 urtera arte ez da biluztasuna eskatzen. Hala, ondorioztatu du begiraleen helburua “posi-

tiboa” bada ere, naturismoaren inguruko ikerketek erakusten baitute biluztasuna normalizatua dagoen eremuan hazitako haurrek gorputzarekiko autoestimu ho-beagoa daukatela, “erraztea dela bidea, ez behartzea”.

Halaber, azpimarratu du trans es-perimentziak dituzten haurren bizipena kontuan izanda –eta intersex esperien-tziak, gaineratuko genuke–, biluztasuna gomendatzeko talka egiten duela “iden-titate eta gorputz guztientzako gune se-guruak” sortzeko helburuarekin: “Gure testuinguruan, zakildun neskek eta bul-badun mutilek oso gaizki bizi dute biluz-tasuna, badakitelako horrek baldintza-tuko duela besteen begirada. Askotan ekiditen dute kirola egitea edo udalekue-tara joatea halako egoerak ez bizitzeaga-tik. Gure seme-alabetariko askok ez dute barruko arropa kentzen ikaskideekin du-txatu behar direnean. Trans ez-binarioek inposizio moduan bizi dezakete bi komu-nen artean aukeratu behar izatea, baina cis-passing ere badaukate”.

Naizen elkarteak irakasle eta begira-leei egiten dien eskaera da familia edo haurraren hitz egiteko, biluztasun egoerak nola bizi dituzten aldez aurre-tik jakiteko: “Batziek antsietate eta pani-ko krisiak dituzte, beste batziek hobeto daramate eta gutxi batzuk lasai biluztu egiten dira”.

Erreportaje hau ixtear irakurri dugu Denuncias Euskal Herrian hurrengo testigantza:

“Ni mutil transa naiz, 6 urterekin joan nintzen lehenengo aldiz Bernedora, eta ordutik uda ia denak pasa ditut udalekutan –hauetan zein beste batzuetan–transa nintzela jakin gabe eta disforia galanta. Urtero dutxatu naiz eta biluzta-sunarekin gaur egun bakean bizi banaiz, garai hartan egindako lanaren fruitu ere badelako izan da neurri handi batean. Eta ez, ez naiz eroso sentitu dutxa dene-tan. Eta bai, errespetatu eta zaindu naute egoera horretan. (...) Dutxen kudeaketa kasu honetan ez bada egokia izan, kudea-keta hori epaitu beharko litzateke, eta ez hortik kanpo geratzen dena [aurrerago zehaztu du bere garaian hiru txanda zeu-dela: neskentzat, mutilentzat eta mistoa]. (...). Ulertu behar dugu halako proiektu edo egoera baten aurka egitea eta pedo-filiarekin edo ez dakit zerekin lotzea, eta pertsona bat seinaltatzea haren aurkako irainak eta gorroto diskurtsoak erabi-liz, transfobia dela. Udalekutan hartu genuen bizi ginen munduaren gaineko kontzientzia (...)”. ●

"Jaten ditugun onddo espezie gehienak gordinik toxikoak dira, adibidez, *shiitakea*"

Udazkenean zentzumen guztiak erne dituztela joaten dira onddo biltzaileak mendira. "Hau jangarria ote da, edo toxikoa?", horra onddoen erreinuko ale bakoitzaren aurrean egiten duten galdera. Asmatu ez dutenek, kasurik larrienetan, ospitalean bukatuko dute eta orduan Pedro Arrillagak medikuen deia jasoko du: "Zehazki zein espezie da gaixo honek jan duena?". Intoxikazio kasu gutxiago egon daitezen, Arrillagak eta Itziar Mayozen liburu bat kaleratu berri dute, bertako 90 espezie jangarri inguru eta 120 espezie toxiko inguru nola bereizi azaltzen duena.



 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANIEL BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Aranzadi Zientzia Elkartearen mikologia gelan elkartu gara Pedro Arrillagarekin. 1965etik dago martxan Aranzadin mikologia saila eta Xabier Las-kibar izan zen honen sortzailea. 1976an jaso zuten lehen aldiz ospitale batetik intoxicazio kasu bat zehazki ze onddok –"onddo" hitza mikologoaren artean orokorra da, fungi erreinuaren parte diren "perretxiko" guztiak izendatzeko erabilia– eragin zuen identifikatzeko eskaera, eta kasu hori bizi izan orduko erabaki zuten elkarrekin liburu ateratzea Las-kibar zenak eta Arrillagak, alde medikua idatzi zuen Jesús Avilesekin batera. *Las setas y su toxicidad* (Onddoak eta haien

toxikotasuna) zuen izena 2006an kaleratu zen liburuak eta Arrillagak azaldu duenez, helburua izan zen "bai mikologoentzat eta bai medikuentzat lagungarri izateko, onddo toxikoak eta horietako bakoitzak eragiten dituen sindromeak azaltzea". 2023an atera zuen Arrillagak bigarren liburu, profesionalei zuzendua, bai osasun langileei eta bai mikologoei: mikroskopien irudiak eta iodo erreazioen argazkiak erakusten ditu liburu tekniko horrek, kasu bakoitza bere konplexutasunean aztertuta.

Hirugarren liburu urriaren 31n aurkeztuko dute Pedro Arrillagak eta Itziar Mayozen. Donostian, 18:30ean Aquiri-

men aretoan izango da aurkezpena eta ondoren gaiari buruzko hitzaldia. *Setas tóxicas y comestibles comparadas. Guía para su recolección* (Perretxiko toxikoak eta jangarriak konparatuta. Biltzeko gida) du izena liburuak eta Aranzadirekin argitaratu dutenez, elkartearen webgunean dago erosteko aukera. Liburuan parez pare jarri dituzte espezie jangarrien eta toxikoen argazkiak, eta elkarrengandik ezberdintzeko zein ezaugarriari begiratu behar zaien azaldu dute. Arrillagaren hitzetan, onddoei buruz dagoen konparazio liburu bakarra da.

Bizitza osoa onddoei begira emanda, badira lehenengoz berak deskribatu eta izendatu dituen bost onddo espezie: *agari-*

cus laskibarii –Laskibar lagunaren omenez eman zion izena–, *Porpoloma Aranzadii* –elkartearen aipamena egiten duena–, *Pluteus Izurun* –Donostia izendatzeko erromatarrek zerabilten hitzari erreferentzia egiten diona–, *Agaricus gemlii*, eta azkenik bere izena daraman *Agaricus Arrillagarum*.

Onddo beltzak plantxan bezain gus-tagarri egin zaigu berarekin izan dugun elkarritzeta.

Zer garrantzi du intoxikazioa zehazki ze onddok eragin duen jakiteak?

Sekulako garrantzia du sindromerik larrienenetan: adibidez, euskaraz "hiltzaile zuria" (*amanita phalloides*) esaten zaion onddoak eragiten duen sindromea hilgarria izan daiteke.

Lehen ez zegoen *amanita phalloides* jan ondorenerako tratamendurik, jendea hil egiten zen. Baina egun badira bi tratamendu, perfektu funtzionatzen dutenak, eta lehen 12-24 orduetan esku-hartzen bada, gaixoak ospitaletik oinez ateratzen dira. 1980ko hamarkada bukaeratik ez da intoxikatuta inor hil, tratamendua garaiz aplikatzeari esker.

Liburuan kasu bat azaldu dut, 2024an Bidasoa ospitaletik deitu zidatenekoa: 50 urtetik gorako ukrainar bat zen intoxikatutakoa, beherakoa eta beste sintoma batzuk zituena. "Bada hondakinik?" galdetu nien sendagileei. "Ez, ekarri dituen bakarrak sukaldean prestatutako lau bolatxo dira, platerean geratu zirenak...". "Horrekin aski dut, banoa" erantzun nien. Itziar Mayo emaztea eta biok joan ginen eta kanken neurriko bolatxoak erakutsi zizkiguten, sukaldean prestatuta zeudenak. *Amanita phalloides* zirela identifikatu nuen, tratamendua garaiz egin zitzaion –15 ordu pasa ziren jan zituenetik identifikatu genituenera– eta lauzpabost egunean oinez atera zen eta giblean batere sekuelarik gabe.

Intoxikazio kasuetan Bartzelonara gertu laginak bidaltzen dira diagnostiko zehatza egiteko, baina analisiek denbora behar dute eta denbora hori urrea da. Analsiak iritsi zirenean, erakutsi zuten gizon hark hiltzeko behar den *amanita phalloides* dosiaren bikoitza jan zuela.

Beraz, kalte egin dizula nabaritu orduko ospitalera joan behar da?

Bai, ospitalera joan behar da eta laginak eraman behar dira, hondakin ontzitik hartutakoak badira ere. Nik *amanita phalloides*ak identifikatu izan ditut baita onddoari txapela garbitzerakoan kentzen zaizkion izkin eta kondarretatik ere, edo txortenaren zati batetik... izan ere, hainbat baliabide

erabiltzen ditut: mikroskopiaok, esporak, erreaktibo iododunak, amaxitozina froga...

Urtean zenbat bider jotzen dute zugana erietxeek?

Amanita phalloides-az kutsatutako hamabost-hogei kasu inguru egongo ziren 1980ko hamarkadatik hona. Beste espezieenak gehiago, baina gastroenteritis sindromeak eragiten dituzte, artatzeko errazagoak.

Biltzerakoan zergatik gertatzen dira nahaste gehienak?

Hiruzpalau espezie jangarri ezagutzen ditu jendeak, eta hasten da "hau ona ote da? Niri baietz iruditzen zait, bizilagunari galdetuko diot, aditua dela esaten du-eta...". Bizilagunak esaten dio "jan lasai!", eta gero gertatzen da gertatzen dena.

Liburu hau egina dago biltzera doanak konparatu ahal izan dezan. Ezkerreko orrian txarra den onddoa agertzen da, eta eskuinekoan jangarria dena eta toxikoarekin nahasten dena. Ezker-eskubi izanda, konparatu egiten dira eta elkarrengandik bereizteko balio duten ezaugarri makroskopikoak azaltzen ditu.

Atzean espezieen izen zerrenda dator: euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta latinez. Ordena alfabetikoan izen herrikoiak agertzen dira eta horiek liburuko ze orritan agertzen diren. Beraz, onddo biltzaileak duda badu, bere ustetik abiatzen du bilaketa: "Uste dut gibelurdina dela", eta zerrendan begiratuta, jotzen du hor agertzen diren orrialdeetara, eta orri horietan ikusiko du beste ze espezierekin nahasten den eta zertan jarri behar duen arreta biak bereizteko.

Esaterako, gibelurdinak nahasten dira *amanita phalloides*ekin, txortena moztuta biltzen direlako eta ez lurretik osorik aterata. Horrek eragiten du biak bereizten dituen ezaugarria ez ikustea, onddoaren oinean egoten den "bolba" alegia. Izan ere, jendeak eraztunari begiratzen dio bereizteko, baina eraztuna desagertu egin daiteke. Lurretik txapela bakarrik hartu badut, izan daiteke gibelurdinen oso-oso antzekoa, baina *amanita phalloides*-a. Ez badut arreta jartzen txortenaren oinean duen bolban... *ondoloin*, bihar arte!

Horregatik, onddoak beti oso-osorik bildu behar dira, inola ere moztu gabe. Onddoen identifikazioa ale osoa kontuan hartuta egin behar da, ez txapelaren koloreari edo txapelaren barruan ea xafiak edo hoditxoak dituen bakarrik begiratuta. Behar beste karaktere organoleptiko aztertu behar dira.



"Intoxikazio kasuetan ematen den tratamendua sibilinina-n oinarritzen da, astalikardua daraman konposatu bat"



Bada entzun izan dut onddoa labanaz ebaki behar dela biltzerakoan, lurpean dagoen onddoaren zatia, mizelioa, usteldu ez dadin...

Hori asmakeria da. Fruitua adarretik hartzen badut arbola ustelduko da? Bada onddoekin berdin.

Bolbaz gain beste zein ezaugarri erreparatu behar dira gibelurdinak eta *amanita phalloides*ak bereizteko?

Zeta itxura handiagoa dute *amanita phalloides*en txapelek eta gibelurdinak mateagoak izan ohi dira. Esan dugun moduan, eraztuna egon daiteke edo ez. *Amanita phalloides*en txortena fibratsua da, zuntzetan hausten da; gibelurdinak, berriz, tiza bezala hausten dira. *Amanita phalloides*en txortena eta txapelaren arteko lotura heterogeneoa da, ez dute bat egiten, kolpetxo batekin txapela kentzen zaio; eta gibelurdinen kasuan, aldiz, bat egiten dute txortenak eta txapelak.

“Badira kasuak, lur kutsatuetan sortutako onddo jangarriek toxikotasuna hartu dutenak”



Amanita phalloidesaz gain beste ze onddo toxiko nabarmenduko zenuke?

Bada espezie bat urtero intoxikazioak sortzen dituen: azpiarrosa maltzurra (*entoloma lividum*), ziza zuriarekin (*calocybe gambosa*) eta pago-zizarekin (*clitocybe nebularis*) nahasten dena.

Pago-ziza ezin da jan gordinik edo gutxi eginda, bestela kalte egiten du jan eta berehala.

Ziza zuriak eta azpiarrosa maltzurak antz handia dute, batez ere txikiak direnean biltzen badira. Biltzaileak badaki, nahiz eta ziza zuria udaberrikoa den, udazkenean ere ateratzen dela, baldintzak egokiak badira (tenperatura, hezetasuna). Eta badaki ez dela soilik zelaietan eta soroetan ateratzen, basoetan ere ateratzen dela, izei basoetan, hariztietan... beraz, ziza zuria izan litekeelakoan azpiarrosa maltzurra jaten du eta tripetatik oso gaizki pasatzen du.

Batek azpiarrosa maltzurak bildu zituen, eta badaezpada andreari eta alabari eman zizkien jateko. Ama-alabak intoxikatu zituen, Donostia ospitalera joan ziren, eta handik deitu zidaten medikuek, zer jan zuten identifikatzeko. Eta onddoak bildu zituen azal-gogor alaena Tolosan, etxean! Gainera ama-alabak papertxo batekin bidali zituen ospitalera, esaten zuena: “*Entoloma lividum* izan daiteke”. Alegia, berak ere bazekien zer izan zitekeen, baina ez zuenez segurtasunik, haiei eman zien jaten. Liskar handia sortu zen, alabak ume txikia zuelako eta badaezpada bularra emateari utzi ziolako.

Esan duzu pago-ziza ezin dela gutxi eginda jan... Sukaldean prestatzeko moduaren arabera toxikotasuna aldatzen da?

Bai, izugarri. Jaten ditugun espezie gehienak gordinik toxikoak dira. Adibidez, dendan saltzen den *shiitakea*: gordinik janda pertsona batzuei dermatitis alergikoa eragiten die, “dermatitis flagelatu” esaten dena.

Onddoak sukaldean prestatu egin behar dira. Ondo. Sukaldean gutxi egi-

teagatik intoxikazio gehienetakoa sortzen duen onddoa gibeloliba (*russula olivacea*) da. Horrek sortutako sindromea *amanita phalloides*arekin nahasi izan da. Xabier Laskibarrek 50 kasutik gora erregistratuta zituen, gibeloliba gutxi eginda jateagatik sortuak.

Bikote bat etorri zitzaidan, gizona zurbil, jan zutenak kalte eginda eta beldurtuta. Janari kondar batzuk ekarri zituzten eta ikusi orduko ezagutu nuen. “Galanpernak zirela uste genuen”... hasi ziren, eta nik, “bai, bai, galanpernak dira”. “Sekulako sabeleko mina eman digu eta *amanita phalloides*etan pentsatzen ari nintzen...”. Galdetu nien ea zenbat denboraz egin zituzten sukaldean. “Interneten jartzen zuena, plantxan 10 segundoan”. Hori sukaldean ez egitea bezala da.

Gorputzak ez du eskatzen onddoak egunero eta asko jatea...

Egungo joerak dio onddo guztiak orokorrean toxikoak direla, eta toxikotasun gutxien dutenak jangarritzat ditugula. Premisa gogor xamarra da, baina lehen neurri gisa kontuan hartu behar da onddoak liseritzeko zailak direla.

Sindrome gogor bat bada, Frantzia dektatu zena, mendetan jangarritzat izan den espezie batek eragindakoa: zaldun-ziza orrihoria (*tricholoma equestre*). Hiruzpalau heriotza izan ziren eta ez zekiten zerk eragin zituen. Medikuek ikertzen hasi zen eta hildakoei espezie horretatik maizegi eta janaldi bakoitzean dezente jan zutela ohartu zen: egun berean gosaltzen eta askaritan, biharamunean berriro... Rabdomiolisis pairatu zuten, hau da, gihar zuntzen haustura, bihotzkoarekin batera eta horrela hil ziren. 2000. urtean horrela deskribatu zen sindrome hori.

Beti tamainan jan behar da. Bada jendea onddoak ongi liseritu ezin dituen, karbohidrato indartsuz osatuta daudelako, eta azukre horiek gaizki liseritzen direlako berauek prozesatzen dituen entzima jakin bat ez badago. Hain zuzen, onddoen azukreak kitinosa trehalosa motakoak dira, trehalasa entzimarekin prozesatzen direnak. Baina pertsona batek ez badu entzima hori edo kantitate txikian baldin badu, onddoak jatean ez ditu prozesatuko eta urdaileko minak eta abar jasango ditu. Pertsona horiei normalean onddo espezie guztiak gertatzen zaie, baina badira pertsona batzuk espezie zehatz batzuk onartzen dituztenak. Ezagutzen ditut kasuak: bazen hemen mikologo oso on bat, inolako ondorik jan ezin zuena.

USTE OKER TOXIKOAK

Pedro Arrillaga eta Itziar Mayozen liburutik:

! Zilarrezko goilaratxo edo txanpon bat belztea ez da toxikotasun adierazle. *Amanita phalloides*ek ez du belzten eta hilgarria da; eta, aldiz, jangarri batzuek bai belzten dute, adibidez, zizahoriak, osagai sulfuruak dituelako.

! Okerra da ebakitako zuhaitz ipurdietan jaiotzen diren onddo guztiak jangarriak direnik. Adibidez, hor jaiotzen den *galerina marginata* hilgarria da, eta beste asko toxikoak.

! Okerra da harrek edo bareek jaten dituzten onddo guztiak jangarriak direnik. “Haiek ez dute gurearen moduko urdaila”, ohartarazi du Pedro Arrillaga.

! Okerra da ebakita urdintzen diren onddo guztiak toxikoak direnik. Badira hainbat urdintzen direnak eta jangarriak direnak, onddo hankagorriak (*boletus erythropus*) barne.

! Okerra da galanperna handi guztiak jangarriak direnik. Badira *macrolepiota* familiako espezie toxikoak. Uste oker horrengatik intoxikazio kasuak egon dira. Gainera, galanperna guztiak, badaezpada, ongi eginda jan behar dira.

! Okerra da eraztuna edo bolba dutenak bakarrik direnik toxikoak. Badira eraztuna dutenak eta jangarriak direnak: Galdakao lanperna (*amanita rubescens*) sukaldean ongi eginga; kuletoa edo gorringoa (*amanita caesarea*) eta *agaricus* familiako hainbat espezie.

! Ondorioa: “Egia absolutuak izan daitezke gezurrik okerrenak”, alegia, premisa orokortzaileak oso arriskutsuak dira. 1952an Polonian 102 pertsona intoxikatu ziren *cortinarius orellanus* janda, eta horietatik 19 hil egin ziren. Ordura arte, mikologoek ustea zen *cortinarius* guztiak zirela jangarriak, premisa ausarta, kontuan hartuta badirela genero horretako 1.000 espezie baino gehiago.

Saskian onddo jangarriak eta toxikoak elkarrekin nahasian jarrita, kutsatu daitezke onddo jangarriak toxikoekin?

Xafla edo orri zatiak baldin badituzu nahasian eta zikin eta nahaspilan bai, baina elkar ukitzeagatik, toxikoak hatzekin ukitzeagatik, baita probatu eta ondoren ttu eginda botatzeagatik ere, ez da ezer gertatzen.

Zer? *Amanita phalloides* ukituta edo probatuta ere ez da ezer gertatzen?

Eskuekin ukitzeagatik ez da intoxikatzen. Pusketatxo bat ahoan hartzen duzu, murtxikatu, mihi puntarekin dastatu eta gero ttu eginda botatzen duzu. Zer gustu duen jakin egin behar duzu, gustua ere izan baitaiteke espezie bat edo bestea den bereizteko ezaugarri bat. Badira irin gustua duten onddoak, beste batzuk garratzak direnak, beste batzuk minak...

Amanita phalloides jan dutenek diote zaporez oso ona dela: Laskibar laguna eta biok intoxikazio kasu batera joaten ginen aldiro Laskibarrek galdetzen zien *amanitak* jan zituztenei: "Eta zaporez, nolakoak ziren?"; "Oso onak!", denen erantzuna.

Onddo toxikoren bat jandakoan ba al dago ospitalera joan aurretik etxean hartu dezakegunik? Esnea edo...

Ez. Utzi egin behar zaio gorputzari oka egin dezala, gorputza hidratatu behar da eta ondoren tratamendua aplikatu, zeina batez ere silibinina-n oinarritzen den, astalikardua (*silybum marianum*) daraman konposatu bat. Kantitate handian hartuta eragotzi egiten du toxinak epatozitoan finkatzea.

Koktel efekturik sor dezakete onddoek?

Ez, onddo jangarriak toxikoekin nahasian jaten badituzu, efektua egingo dizutenak toxikoak soilik dira, ez da toxikotasunik pilatzen.

Kutsadurak eragiten al du onddoen toxikotasunean?

Badira kasuak. *Leucopaxillus lepistoides* espeziea jangarria da, oso ona, baina zelaietan jaiotzen da. Onddoak osmosi bidez elikatzen dira. Hau da, mizelioak (onddoaren lurrazpiko zatia) xurgatu egiten ditu lurtean diluitutako mantenugaiak eta lurra kutsatuta badago, karpoforoa (lur gainean ikusten dugun onddoa) atera daiteke elementu horiez kutsatuta: izan daitezke purinak, fumigazioak eta abar.

Kasu bitxi batean esku-hartu nuen, eta eztabaidak izan nituen. Nafarroako ospita-



Urriaren 31n aurkeztuko duten liburuan, ezker eskubi, amanita phalloides eta gibelurdina parez pare konparatzen dituen orrialdeak.



letik lagin bat bidali zidaten aztertzeo eta dudarik ez zegoen *Leucopaxillus lepistoides* onddoa zela jan zutena. Baina mikroskopioarekin behatu nuen mamian kristal pila bat zituela txertatuta. Eta kristal horiek ez ziren edozer, halogenatuak ziren. Eta horrek intoxikazio kasu bat sortu zuen. Horra, beraz, espezie jangarri bat, kutsatuta toxikotasuna hartu zuena.

Mikologia karrerarik ez dago. Nola formatu zarete mikologoak?

Bizitza oso batean zehar. Batzuk biologoak ere ez gara. Ni itsas merkatari ohia naiz, horren ostean 26 urtez irakasle izan nintzen, Pasaiaiko institutu politeknikoan. Baina galtza motzak janzen nituenetik dut ondoekiko zaletasuna. Zazpi-zortzi urterekin, galtza motzetan joaten nintzen aitonarekin onddo bila Amasa-Villabonara, Arantzabira. Han bazen harizti bat, eta aitonak hiru espezie biltzen zituen: zizahoriak (*cantharellus* familia), onddo beltzak (*boletus aereus*) eta gibelurdinak. Eta kito. Gure aitak zazpi espezie biltzen zituen, baina duda txikiaren aurrean zakarretara botatzen zituen. Eta inoiz ez dugu intoxikazio arazorik izan.

Zuen aitonak hiru espezie batzen zituen, zuen aitak zazpi... eta zuk, zenbat ezagutzen dituzu?

Ez dakit, milaka.

Zergatik gustatzen zaizkizu onddoak?


Ikerketa da eta jakinmina. Gizakia berez da jakinminekoa. Biltzen hasten zara, jateko. Baina ikusten duzu han geratzen direla

onddo klase pila, eta galdetzen duzu, "eta hau? Jango ote da edo ez? Zer ote da? Nola du izena?". Gutxi batzuk biltzetik, gehiago biltzera, jaten hastera, ikasten hastera, mikroskopioa hartzera, erreaktiboak hartzera, mundu mailako bibliografia aztertzerara... 60 urte pasa dira.



**TALLERES
MITXELENA
S.COOP.**





Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
 info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

IPUINAK

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



ARGIAren 'Abentura erraldoia' ipuina Sarako 72 familiatara heldu da 'Haria' harpidetza egitasmoari esker.

'Abentura erraldoia' 72 etxetara heldu da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Haria ez nuen ezagutzen. Paperezkoak bai, erabiltzaile gara, Garoa liburu-dendaren jarraitzaile, eta pozarren jasotzen ditugu paperezko itsasontziak hilerio bidaltzen dizkigun altxorak. Antzeko funtzionamendu eta helburuak dituzte, ipar eta hego; haur literaturaren pilulatxoak harpidetun txikiei postontzira bidaltzea, euskaraz osatzen joan daitezen emozio eta oroitzapenen poltsatxoak belaunaldi berriak. ARGIAren *Abentura erraldoia* aukeratu dute *Haria*-ko lagunek, Saratik (Lapurdi) mundura erraldoien magia zabaltzeko.

Xeheago eta praktikan azaltzeko: Hila-betero, euskaraz argitaratuak diren liburu berrien artean bat aukeratu eta proiektura harpidetuta dauden familiei etxera bidaltzen zaie postaz. "Arta handiz hautatu liburu bat eskuratzen du haurrak, bere adinarentzat egokia", irakur daiteke www.haria.eus webguneko azalpenean. Liburuarekin batera helduei zuzenduta-

ko dokumentu bat ere gehitzen baitute, istorioaren lerro nagusiak, aipatzen diren gaiak eta aholku zenbaitekin; beti ere haurrarekin solastatzeko lagungarri. Eta, hori gutxi balitz, ipuina entzuteko audio bat ere izaten du, guraso erdaldunentzat egokia, "haurrarekin goxoki jarri eta ipuina euskaraz entzuteko". Orain dela gutxi, proiektua bera itzulpenak argitaratzen hasi da eta lehen liburua ere ekoitzi du.

Abentura erraldoia liburuaren 72 ale erosi dituzte eta pakete polit batean bilduta jaso du harpidetun bakoitzak etxean. Mirentxu Ibargarai da *Haria*. *Ametsak ehundu* egitasmoaren sortzaile eta gidaria. Ikastolako irakasle eta guraso, Haur eta Gazte Literaturan formatzen ari da azken urteetan eta hala azaltzen du liburuekiko bere pasioa: "Ene haur eta ikasleentzat, euskarazko liburuaren miazten ibiltzea gustatzen zait: istorio eta ilustrazio ederrekilakoak, gogoetaratzen, irri eginarazten, hunkitzen dituzten liburu landuak, behin

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Kazetaritza burujabea egin dezazuen, putreen menpe egon gabe. Eta euskaraz, ezkerretik eta komunitetik.

Irundik Nestorrek


“”

Betidaniko lotura izan dut aldizkariarekin. Hasiera-hasieratik euskalduntze prozesuan lagundu eta unibertsoaren euskarazko leihatila zabalik izaten lagundu dit.

Berriztik Joxe Marik

eta berriz irakurtzeko eskatzen dizkidate-nak, baita ere bakarrik irakurtzeko kalitatezko lehen irakurketak". Hortik abiatuta eta euskara ardatz, honakoa dio: "Liburu bat irekitzea haur eta gurasoaren artean une bat partekatzea da, ongizate eta goxotasun une bat. Euskarazko liburu bat irekitzea hau guzia da, euskaraz. Eta euskarazko liburu bat irekitzea erabaki bat da. Euskarazko liburuak etxetara sarrazteak hizkuntza hauspotzen du eta euskaraz irri eginez, euskaraz hunkia izanez, bere haurrarekin une bat euskaraz partekatuz, etxean ere hizkuntzari espazioa eta denbora ematen zaizkio".

72 familiak *Abentura erraldoia* etxean jaso dutela pentsatze hutsa ederra da. Atzetik duen indar guztia jakinda, are ederragoa. ●



Xabiartxok espainolez ikasi behar du



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Madril, 1925eko urriaren 13a. José Antonio Primo de Rivera diktadoreak “propaganda antipatriotiko eta antisozialari” buruzko errege dekretua sinatu zuen. 2. ordenan, dekretuak zera zioen: “Lehen hezkuntzako ikuskariek (...) eskoletako testuliburuak aztertuko dituzte, eta espainolez idatzita ez badaude (...), berehala haurren eskuetatik erretiratuko dira, eta irakasleari espediente zabaldu, enplegua eten eta soldata erdia kenduko zaio”. Euskarazko testuliburuak debekatu zituela, alegia.

Baina ez dirudi neurriak zentzu handirik zuenik, kontuan hartuta urtebete lehenago, 1924ko urriaren 27an, beste errege dekretu batek eskolak euskaraz ematea debekatu zuela. Zirrikiturik ez zuten utzi nahi nonbait, eta, beharbada *Xabiartxo*-k izango zuen eraginik nonbait. Euskarazko testuliburuaren aitzindaria eta belaunaldi askorentzat erreferente izango zena 1925ean bertan argitaratu baitzen lehenengoz.

Baina euskarazko hezkuntzaren kontrako neurriak ez dira azken mendera mugatzen. 1761ean Agustín Kardaberazek hauxe idatzi zuen: “Arabian nenbilen batean, hango adiskide eta Erregeren Guardietako kapitan baliante batek behin esan zidan: ‘Aita, nola euskal herrietan umeen haziera ona eta behar den dotrinarik izango da, baldin euskara hondatzeko ahalegin guziak egiten badira, eta gure mutiltxo edo hurrei, beldur eta azotearekin, euskaraz hitz egitea eragozten bazaie?’. Hurrengo hamarkadan,



Duela 100 urte, *Xabiartxo*-ren lehen edizioarekin bat, Primo de Riverak euskarazko testuliburuak debekatu zituen.

1772an, Karlos III.ak eskolan gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzea debekatu zuen.

Mugaz bestaldean egoera ez zen hobea, eta Frantziar Iraultzak ez zion mesederik egingo euskarazko hezkuntzari; 1794ko azaroan Biltzar Nazionalak hezkuntzan frantsesa bakarrik erabiltzea agindu zuen dekretu bidez.

XIX. mendean, alde batean zein bestean, aurreko mendeko neurriak berretsi zituzten. Espainian Moyano Legeak eskoletan gaztelania inposatu zuen 1857an. Eta Frantzian hainbatetan lehenetsi zuten frantsesa hezkuntzan (1833ko Guizot legea, 1850eko Falloux legea, 1882ko Ferry legea...). Eta, badaezpada, neurri zehatzagoak ere hartu zituzten, esaterako, Mauleko barrutiko

inspektoreak 1833an euskara hezkuntzatik baztertzea erabaki zuenean.

Primo de Riveraren diktadura amaitu zenean, Espainiako II. Errepublikak berriro euskaraz ikasteko aukera zabaldu zuen, baina egoerak ez zuen luze iraun. Jakina da, esaterako, Frankismoak euskarazko hezkuntza debekatzeaz gain, makilatxoaren edo eratzunaren metodoak erabiliz eskolan euskaraz hitz egiten zutenak zigortzen zituela.


Baina 2001ean, Cervantes sarien banaketa ekitaldian, Espainiako errege Juan Carlos I.ak esan zuen gaztelania ez dela sekula inposatu, eta ez zioten halako gezurrak gaztelaniaz nahiz beste edozein hizkuntzatan esatea legez debekatu. ●

XIII. mendeko moda orrazi batean

Eskoziako Highlandseko Eilean Donan gazteluan, XIII. mendeko orrazi bat aurkitu dute, ilea zehaztasunez banatu eta orrazkera elaboratuak egiteko erabiltzen zuten *gravoir* bat.

Baina aurkikuntzaren garrantzia ez datza piezaren funtzioan, dekorazioan baizik: kirtenean emakume bat dauka, buruan txanoa eta eskuan liburu bat

dituela. Figura garai hartako europar gorte nagusietako modan jantzita dago, bereziki Frantziako gorteak markatzen zuen modan. Baina objektua Eskozian fabrikatu zela ikusi dute ikerlariak eta horrek esan nahi du Erdi Aroan ere Parisko modaren eragina txoko urrunetara hedatzen zela. Eta irakurzaletasuna ere bai, beharbada. ●



NATIONAL MUSEUMS SCOTLAND

LOREEN AGURRA



GARBIÑE LARREA ITURRALDE

Udazken sasoia iritsi zaigu eta ohikoak diren irudiak etorri zaizkigu; hostaje gorrixkak, erortzen ari diren hosto bakan malenkoniatsuak, haizeak astindutako orbela.

Zuhaitzen hostoekin batera loreak ere badoaz, baina lorearen iruditeria udaberriarekin lotzen dugunez, uste dut ez diegula erreparatzen loreen agurrari. Hau idazterakoan urrezko hagaxka (*Solidago virgaurea*) sorta daukat ordenagailu aldamenean. Mandabelarrak (*Centaurea jacea*) ere tente altxatzen ditu begi moreak garo artean. Aingeru-belarra (*Angelica sylvestris*) izango da gehien iraungo duena, izotzak jo arte errepide bazterretan ere sendo iraungo duelako, mihiluaren (*Foeniculum vulgare*) aldamenean.

Baratzean loreak dituenak ere honezkero bildua du uzta. Mendak (*Mentha familia*), izpilikua (*Lavandula angustifolia*), ilena (*Calendula officinalis*), ezkaia (*Thymus vulgaris*) eta erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), besteak beste, dagoeneko lehortu eta jasota izango dituzue ziurrenik.

Arrosa (*Rosa familia*) izango da akaso loreetan loreena, edertasunaren eta lorearen ikur bat baldin bada. Hala ere, inork gutxi ikusiko dio arrosari lurrinaz haratagoko baliorik. Arrosa gorriak balio terapeutikoa ere badu eta merezi du horretaz aritzeak, sendabelarra dela esatea asko kostako zaigun arren. Kontuan izan balio terapeutikoa arrosa gorriarena dela eta ez digula balio bestelako koloreak dituenak.

Erlaxazio fisiologiko eta psikologiko eragiten dituela ikusi da, eragin analgesikoa eta antsiolitikoa duela ere bai. Emozioek eragindako tentsioa eta urduritasuna izan baldin baditugu egokia da

iluntzean infusiotan hartzeko, insomnia badago batez ere. Gorputzeko likido atxikipena gutxitzen du, batez ere hileko aurreko sindromea dagoenean. Hilekoaren mina edo dismenorrea arintzen ere badu tradizioz, nahiz beste sendabelar batzuk erabili izan ditugun horretarako.

Azkenaldian te beltzarekin (*Camelia sinensis*) nahastuta ikusten dut salgai, gosalteko ez da *breakfast tea* txarra. Rooibosekin (*Aspalathus linearis*) nahastuta ere goxoa dago, kakao (*Theobroma cacao*) aleekin batera dator askotan, sinergia polita eginez. Honek arima goxatzen duela esatea ez da atrebentzia. Infusio hauek ez dezatela arrosa olio esentzialik eduki, ia ziur sintetikoa izango baita, gorputza kutsatzeko eta kaltetzeko bestetarako ez. Benetako olio esentziala izango balu izugarri

garestia litzateke eta kontraktasuna du haurdunaldian. Ez du beste albo ondoriorik baina duen hori aintzat hartu behar da. Norberak bere lorategian dituen arrosa gorriak erabiltzea gomendatzen dut, arrosazalea denak ongi ezagutzen baititu honen beharrak eta loraldiak.

Amaitzeko, hau idazterakoan astero ikusi dudun arrosoz bat datorkit burura; Tolosan, errepide ondoan, putetxe baten hormaren kontra. Beti egon da zigortuta bezala, leku txarrean penatuta dagoen landarea ikusten nuen. Putetxea itxitakoan kolpetik hazi, indartu eta loratu da, uste dut bakarrik azaltzen dela adibidea. Eta bat-batean, edertasun handi horrek baten bat amorratu izan balu bezala, ipurditik moztu dute, desagerrarazi. Malko batekin noa ipintzera azken puntua. ●



GARBIÑE LARREA ITURRALDE

A ZE FAUNA!

UDAZKEN TRONPETAK



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA



TAURI PÄRNA

Zuhaitzen hostoak erortzen ari dira, eguzkiak ez du hainbeste berotzen baina azken izpiak aprobetxatuz, bazkalostean mendi bueltatxoan ematera irten gara. Mendiaren soinetan barneratuta, bat-batean tronpetak diruditen “kru-kru-kru” hotsak entzuten dira. Begirada zerura altxatu, eta hara V itxuran hegan doan hegazti multzo eder bezain zaratatsu bat: kurrilo arruntak (*Grus grus*) dira, umatze lekuak utzita negua pasatuko duten eremuetara migrazioan.

Euskal Herrian umatzen ez den arren, aski ezaguna da bitxia bezain liraina den hegazti hau, urtero baikara bere migrazioaren testigu. Hegan doazela ikusteko errazak dira gainera, alde batetik, ez direlako txikiak: 1,20 metroko altuera hartzen dute eta hegotik hegora 2 metro baino gehiago izan ditzakete. Bestetik, talde handitan migratzen dutelako.

Gris kolorekoa da kurriloa, hanka zein lepo luzeekin. Burua eta lepoa beltzak ditu, baina bi marra zuri irteten zaizkio begialdetik, mozorroa balu bezala, eta bi lerro zuriak lepoaren atzealdean elkartzen dira. Kasko gorria ere badu, begi gorriekin konbinatzen duena. Isatsak, aldiz, luma-motots bat dirudi.

Europa erdialde eta iparraldeko zingira eta hezeguneetan umatzen dira, eta urtean txito bat edo bi izaten dituzte. Uda

KURRILO ARRUNTA *Grus grus*

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik isatsera 96-119 cm eta hego-luzera 180-222 cm.

NON BIZI DA? Hezegune, zingira, laborantza soro, dehesetan.

ZER JATEN DU? Ezkurrak, lekaleak, zerealak, zizareak.

BABES MAILA: European babestua.

amaitzean toki epelago batera migratzeko garaia da eta kurrilo familiak beste familia batzuekin elkartu eta migratzeko prestatzen dira: talde batzuek 3.000 kilometro baino gehiagoko bidea izango dute aurretik. Familia talde handi hauetan mantentzen dira bai migrazioan zein neguan ere. European zehar umatzen diren kurrilo gehienek Espainia hegoaldean igarotzen dute negua, eta hor gaude gu, erdibidean, urri eta azaroan zehar beraien hegaldiak miresten.

Negute eremuetara heldutakoan, hezegune inguruetan, laborantza lurretan eta batez ere, arte dehesatan igarotzen dute denbora, ezkurrak izugarri gustatzen

baitzaizkie. Horiek agortzean ordea, elikagaiez aldatzea beste erremediorik ez dute eta zereal ale, erraboila, lekale, zizare eta barraskiloak jaten dituzte; noizbehinka, ornodunen bat ere bai. Gaua pasatzeko etzalekuetan biltzen dira, neguko gau hotzak igarotzeko elkarren goxotasuna bilatuz, agian.

Otsaila eta martxoa heldu bezain pronto ekingo diote berriz migrazioari, umatze lekuetara bueltatzeko. Oraingoan familiak banatu egingo dira, helduak lehenago abiatuko baitira, eta gaztetxoek, aldiz, beraien bideari hasiera emango diote. Euskal Herrian udaberriko migrazioan ere kurriloak ikusten diren arren, ez da udazkenekoa bezain deigarria izaten: batetik, familiak banatu ostean hegazti multzoak txikiagoak izaten direlako eta bestetik, bidea ekialderagotik egiten dutelako.

Gurean umatzeko zein negua pasatzeko hainbat faktore mugatzaile dituzte kurriloek: esaterako, gizakion eragozpenek eta linea elektrikoekin talka egiteak ugaltze arrakastan eragina dute. Negute eremuetan aldiz, larreen gutxitzeak, isilpeko ehizak edo etzalekuetan pairatzen dituzten eragozpenek kalteak eragiten dizkiete. Hala ere, zorionekoak gara, badaudelako Euskal Herrian negua pasatzen dutenak: kurrilo talde batzuk Nafarroa hegoaldean geratzen dira. ●

SAGAR INAURKINA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Inaurkina. Inaurkingintzan buru-begi hasia dago aberats jendea, abeldun jendea, abeltzaina. Buru-begi eta buru-belarriak erne egin beharreko lana da inaurkinarena. Etxeratu nahi den zaborra da inaurkina. Izan ere, zaborra, gaur egun sortzen duguna ez bezala, begi-bistatik ziztuan itzalarazi nahi dugun zakar hori ez bezala, zaborra urrea da. Mendian sortzen den landareen honda-kina da zaborraren fundamentua.

Inaurkin ezagunena garo arrunta da (*Pteridium aquilinum*), izen ugari duena: ira, iratze, iraztor, inixtor eta abar. Garoa edo ira garoilean edo irailean moztu, jaso eta etxeratzen da, karrera, mandio, ganbara-zabal edo metan jasotzeko. Buruila ere bada iraila eta udara burutu da; garoak ere bere sasoi osoa osatutzat jo eta gorri-gorri jartzen da. Agorra ere bada iraila eta garoari agortzen zaio urte honetako kemena. Ez alferrik “*autono*” ere esaten zaio irailari, “*automne*” ere esaten zaion udazkena bete-betean ekartzen duelako.

Ihintza lodiak, gau freskoak, eta egun motzak garoa etxeratu behar dela diote. Garoa azpigai urte guztian beharko da, abereak ukuiluan edo kortan ditugun artean behintzat bai. Ez garoaren tamainan, baina inaurkin edo azpigai ugari erabiltzen da: arta-zuztarra (*Zea mays*), belar zakarra, belar ondu zaharra edo bustia, lastoa, orbela, zerrautsa, txirbila eta abar.

Beste inaurkin bat ere bada: fruitu arboladietan aleak arbolatik erori eta lurtean pilatzen direnean inaurkina esaten zaio. Orain, adibidez, sagar inaurkina (*Malus domestica*) ikusten ari gara baz-

terretan, aurten bai-urtea baita, sagardo sagarren eta berandu-sagarren biurteko zikloan alea erruz ematea dagokion urtea, alegia. Bada sagarretik, eta sagarrondopean sagar inaurkina.

Sagar inaurkinak izango du sagar angel, sagar zeken, sagar harjo, sagar eri, sagar txoro eta sagar usteletik. Nahasketa xeble hori ez da, inola ere, egokia pitar edo sagardo ona egiteko. Askok jota, zizar kaxkarren bat egingo du bateren batek baina ez niri ekarri sudamintzen ingurura.

Ez dut uste asmo egokia denik sagar inaurkina abereen azpitan jartzea. Abere guztiak gu bezalaxe, fruituzale amorratuak dira, urte sasoi jakin batzuetan soilik izaten da fruituak jateko aukera, bakoitza bere garaian, baina beti ona gustagarria da fruitua, berdexego edo zekenxego edo gorbezituxeago egonagatik ere. Mo-

koka edo koskaka azkar asko jango dute. Horregatik azpitan sagar lurrin hori ez dut uste ona denik. Oso, oso ona da, baina, sagar inaurkina luar pila edo simaurra ondo luartzeko, ondo ontzeko, ondo hartzitu eta luar on baino hobe egiteko. Nahastu simaurrari edo luarrari tamainan, ito gabe; sagar aleak jota edo zatituta, sagar usain ezagun hori, etileno gasa, askatuko dute eta hartzidura suspertuko; egokiena inaurkin lehorrak pixka bat gehitzea litzateke: lastoa, zerrautsa, txirbila, orbela; etxeko luarra bada simaur pixka bat erantsi bizkorgarri; eta asun ura (*Urtica dioica*) edo eta zolda-belar (*Symphytum spp.*) urarekin busti.

Sagarrondoa ongarritzeko gaia izango duzu. Gero ere jateko, gordetzeko, muztioa, pitarra edo sagardoa egiteko nahiko sagar izan dezazun eta tartean baita sagar inaurkina ere. ●



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC BY-SA

Zereal, lekale eta
bazka ekologikoak.
Salmenta zuzena

info@hazialdeko.eus
621 229 415

HAZIALDEKO
Naturakoa Ekologikoa
Produktuak Ekologikoa Nazarra



ELENA AGUERRE

“HEMENGO BARIETATEETAN EZ DA SAILKATZE LANIK EGIN JATEKO SAGARRAK UKAITEKO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Baigorriko pentzeetan jateko sagarrak ekoizten ditu Elena Aguerre laborariak. Lekorneko Garroa etxaldean barazkigintza ekologikoan luze aritua zen, baina 2022-2023ko neguan Baigorriira lekualdatu eta proiektu berria jarri zuen abian: “Pentze bat xerkatu eta hektarea eta erdi sagarrondo landatu nituen, bi mila arbola, zortzi barietatetakoak”. Jateko barietateak dira denak, bildu ondoren ganbaran negu guztian atxiki daitezkeenak.

BARATZETIK FRUTARBOLETARA

Proiektua abiatu aitzin, formazioak jaso zituen Aguerrek frutarbolgintzaren inguruan. “Biharko Lurraren Elkartearekin bisitak egin genituen fruituak ekoizten zituzten proiektuetara, eta Baigorriin instalatu aurretik, Garroa etxaldean landatu genuen lehen arbol pentzea”, dio. Bazuen gogoia baratze gintzatik arbolgintzara pasatzeko, eta zahartzarora begirako gogoetek ere lagundu zioten erabakia hartzen: “Proiektu berri bat hasteko energia aunitz behar da, eta bi proiektuekin ezin nuen segi, beraz, bete-betean Baigorriko proiektuan sartzea erabaki nuen”.

Euskal Herria fruituak ekoizteko tokirik onena ez dela jakitun, sagarra aukeratu du Aguerrek, Baigorriko ingurura eta klimara gehien egokitutako fruitua delakoan. “Sagarra bakarrik jartzea erabaki nuen, baina barietate ainitz ditut, horrela arrisku gutxiago dut barietate bakarra jarrita baino”. Kide mahastizaina du laborariak, eta makineria eta tresna asko partekatzen dituzte. “Lanen mekanizazioa badugu, baina



20. Lurrama egingo da Miarritzen azaroaren 7tik 9ra eta Elena Aguerre izango da aurtien gazama (amandrea).

biologikoan ari gara, eta beraz, erabiltzen ditugun produktu eta metodo guztiak naturalak dira”, gehitu du. Nekazaritza biologikoan onartuta dauden tratamenduak darabiltza, izan ere, jateko sagarrak izanik, garrantzitsua da fruituek usteldurarik, harrik eta bestelakorik ez izatea.

JATEKO SAGARRETAN TOKIKO BARIETATERIK EZ

Euskal Herrian sagardorako sagarrak ekoizti izan dira batik bat, eta Aguerrek dioenez, jateko sagarren kasuan ez du bertako barietate aproposik topatu. “Hemengo barietateetan ez da sailkatze lanik egin, beraz, nik darabiltzadan barietateak Frantziako Estatuko hego-mendebaldeko beste etxalde ekologikoetan ikusi ditudanak dira”. Barietate modernoak direla nabarmendu du, baina eredu ekologikoan az-

karrak direnak eta eritasunen kontra ongi egiten dutenak.

Gaztea da oraindik Aguerrearen sagastia eta proiektua, baina aurtien uzta polita jaso du. “Momentuz, helburua da urtean gutxi gorabehera hogeita bat tona ekoiztea, eta hori hemen hurbilean saltzea”, dio. Tokiko elikadura du helburu laborariak, hurbileko zirkuituan saltzea sagarrak: AMAP sistemaren bidez inguruko herrietan eta saltegi eta kantinetan. Iaz izan zuen lehen uzta, aurtien askoz sagar gehiago bildu du, eta heldu den urterako helburura iritsiko dela aurreikusi du. “Sagarren problema da landatzetik hiru urte ari zarela beti lanean eta fruiturik ez duzula saltzen”. Gehitu du inguruan oso gutxi direla jateko fruituen ekoizpenean, baina jende asko ari zaiola galdezka eta informazio eske. Interesa piztu du, beraz, egitasmoak. ●

ZIGOITIA

ABUZTUAK 2
Larunbata

ZARAUZ

ABUZTUAK 22
Ostirala

ZUMAIA

ABUZTUAK 29
Ostirala

DONOSTIA

IRAILAK 6
Larunbata

ERRENTERIA

IRAILAK 13
Larunbata

ALGORTA

IRAILAK 13
Larunbata

ZERAIN

IRAILAK 21
Igandea

AZPEITIA

IRAILAK 26
Ostirala

MUNGIA

IRAILAK 27
Larunbata

GASTEIZ

URRIAK 4
Larunbata

DURANGO

URRIAK 4
Larunbata

EIBAR

URRIAK 11
Larunbata



UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK

Antolatzaileak:



Babeslea / Financiado por:
Euzkadi, auzolana
Euzkadi, auzolana
Euzkadi, auzolana
Euzkadi, auzolana



“ ”

Kontentzio ariketa izan da pelikula hau egitea

Asier Altuna, zine zuzendaria

Elkarrekin esnatzeko ordua (Susa, 2016) Kirmen Uriberen nobelan oinarrituta, *Karmele* pelikula zine aretoetan estreinatzeaz da Asier Altuna (Bergara, 1969). Lehen lurreratzea Donostiako Zinemaldian izan du, eta bertako ateak ireki orduko eman dio elkarrizketa ARGIAri, goizean goiz. Gipuzkoako hiriburuan egin du zita; bizkaiera jasoa, elkarrizketa. Urriaren 10ean, *Karmele*, zinema aretoetan ikusgai.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Karmele Urrestiren eta Txomin Letamendiren istorioa dakarzu, aurretik Kirmen Uribek jasotakoa. Zer esan dizu Uribek?

Oso pozik dago. Bere herrian oso gertukoa zuen familia baten istorioa hartu zuen. Gainera bizirik dagoen familia da: Txomin eta Patxi (Karmeleren eta Txominen semeak) bizirik daude; Ikerne (alaba), aldiz, pelikula grabatu baino bi hilabete aurretik hil zen. Kirmenek hartu du herriko istorio bat eta horrekin liburua idatzi du; eta gero, liburu hori pelikula bihurtzen da. Eta estreinaldia du Donostiako Zinemaldian. Bada pozik egoteko modukoa. Gainera, Kirmen oso alaia da, baikorra, zoratzen dago honekin.

Zelakoa izan da sortze prozesua? Uribek parte hartu du?

Ondarroako *Marabilli* festubalaren inguruan sortu zen kontu hau. Kirmenek

esan zidan, familiako etxe Antso-solo pare horretan geundela, nola Frantziskok sua eman zion bere atun ontziari, eta amua bota zidan; arrantzalea dela ezagun du. Liburua irakurri nuenean konturatu nintzen zenbat abentura bizi izan zituzten, zelako familia konprometitua zen: bi erbestealdi, espia lanak egin zituzten, bueltatu ziren diktaduraren aurkako erresistentzian parte hartzeko... Sekulako istorioa zen. Kirmen oso gertu izan dut beti, eta esan nionean pelikula egiteko asmoa nuela oso pozik hartu zuen. Bidean proiektuaren nondik norakoak kontatu dizkiot, gidoiaren bertsio bat edo beste irakurri du, eta beti alde egon da eta errespetuz tratatu du; ez du parte hartu ezta epaitu ere. Iazko Gabonetan erakutsi genien berari eta bere familia osoari oso aurreratuta geneukan zati bat, baina oraindik bukatu gabe zegoen pelikula, eta oso pozik eta hunkituta geratu zen.

Badira ia hamar urte Uribek liburua kaleratu zuela. Zergatik orain pelikula?

Pelikulak egitean ez da erabakitzen noiz bukatuko den. Nik liburua kaleratu orduko irakurri nuen, Kirmenek bidali zidan, eta ikusi nuen hor bazegoela zerbait. Hasi nintzen tratamendua egiten, eta sei-zazpi urte pasatu ditugu finantziarioa bilatzen, gidoia hobetzen... Ez da erraza izan, oso konplikatu delako garaiko pelikula bat egitea eta gu eroso sentitzea grabaketan hasteko. Prozesu hau niretzako normala izan da, bitartean beste gauza asko egiten joan naizelako: beste hiru pelikula grabatu ditut. Oso ohituta gaude horrela lan egitera, ortu bat bezala da: produktu batzuk dituzu jada jasotzeko, beste batzuk daude hazitegia eta beste batzuk landatzen.

Momentu egokia dela uste dut, gainera. *Karmele*-n kontatzen den historia: faxismoaren kolpea eta gerra, indarkeria, kolonialismoa... gauza horiek guztiak gaur egun gure egunerokotasunean daude. Eresoinka moduko proiektu baten inguruko pelikula bat egitea, zeina faxismoaren eta gerraren aurka ari zen, gero eta beharrezkoagoa dela uste dut; momentu egokia da, zoritxarrez. Kultura eta hezkuntzaren artean zubiak sortzea garrantzitsua da.

Jone Laspiur da Karmele; Eneko Sagardoy, Txomin. Zelakoa izan zen hautaketa prozesua?

Nik gogoia nuen Enekorekin lan egiteko,



ikusten nuen Txomin Letamendi beza-lako pertsonaia bat oso ondo egin zeza-keela. Izan ere, Txominek badu transfor-mazio puntu bat: berez euskaldun umila zen, baina giro "VIPetan" ondo mugitu zitekeena. Gustatzen zitzaidan bere per-tsonaia. [Manuel] Sota, Kepa Errasti, ere ikusten nuen Enekoren lagun moduan: altuera bera dute, bizitza errealean ere lagunak dira. Bi horiek argi nituen. Kar-melerena prozesu zailagoa izan da. Ema-kume gazte bat izan behar zen. Nahikoa kostatu zitzaidan, baina erabaki nuen Jone izango zela, casting-aren gai-nontzeko arloak mugitu ziren, batez ere gurasoak.

Nik 56 urte ditut jada, adinean aurre-ra noa, baina norbera beti sentitzen da gazte. Amonaren papera egiten ez dut ikusten nire belaunaldiko inor. Horrega-tik, idazterakoan, nik aurreko belaunaldia nuen buruan: Ane Gabarain, Klara Badio-la, Kandido Uranga... *Amama*-n ere horre-la egin nuen. Baina bat-batean konturatu

nintzen Karmelek 20 urte baditu amamak ezin dituela 50 baino gehiago izan, eta or-duan esan nuen: Nagore [Aranburu]. Ho-

“ ”

***Kultura eta
hezkuntzaren artean
zubiak sortzea
garrantzitsua da***

rrek aldatu zuen dena.

Gero, gozamina izan da aktore guz-tiekin lan egitea, uste dut protagonista

denak daudela oso ondo. Nagorerekin lan egitea itzela da, Jonek dena ematen du; gainera, orain arte egin ez duen pa-per bat da oraingoa, eta bera irribartsu ikustea pozgarria da. Javi Barandiarane-kin [Karmeleren aita] lan egitea ere oso polita izan da, aspalditik neukan gogoia, bere aurpegia gustatzen zaidalako: asko ematen du gutxierekin.

Gerra eta erbestea ezagunak dira Euskal Herrian, baina erbestean egindako lanak ez horrenbeste: Eresoinka izango da ezusteko handienetako bat.

Eresoinkaren parte guztia harrigarria da. Nik ezagutu nuenean konturatu nintzen sekulako lana egin zutela, eta oso indartsua iruditu zitzaidan. Par-te emozionala da, musika da. Gerratik alde egin zuten, indarkeria eta bortiz-keria pairatu zituzten, eta bat-batean gazte talde bat sortu zen kantuan bira bat egiten Europatik. Jende gaztea zen,



maitasuna... bizitza txute bat eman zien. Hori dena musikak lagunduta. Zoragarria izan zen. Hasierako itzal guztiak argitzen ditu Eresoinkak.

Hain zuzen ere, musikak presentzia handia du pelikula guztian, baina garaiaren eta lekuaren arabera aldatzen doa.

Musikak bidaian laguntzen die pertsonaiei, eta laguntzen du herrialde ezberdinetako pausoak ematen. Bilbora itzultzen direnean, musika bukatzen da, lehen sumatu den argitasuna itzaltzen da. Eresoinkak, musikak, eman dit elementu narratibo oso indartsu bat.

Musikak ez bezala, elkarrizketek ez dute horrenbeste presentzia: eszena asko daude elkarrizketa oso sotilekin. Garaiaren soiltasuna erakutsi nahi zenuen?

Uste dut off-ean asko kontatzen dela, baita begirada batekin ere. Gustatzen zaidan zinea horrelakoa da, *Amama* ere horrelakoa zen. Entseguak egiterako orduan beti galdera bera egiten dut: "Hau elkarrizketarik gabe kontatu daiteke?, eta horrela bada, kendu egiten dugu. Niri gustatzen zaidan zineak istorioa aktoreen, keinuen eta irudien bitartez kontatzen du, beste modu batera. Uste dut, gainera, era horretara eginda, elkarrizketa heltzen denean pisu berezia hartzen duela.

Irudiak aipatu dituzu. Hain zuzen ere,

koloreekin jolasean aritu zara pelikulan: gerrako eta Euskal Herriko irudiak tonu hotzetan ziren; erbestekoak eta Eresoinkakoak, aldiz, beroak.

Musikarekin egin dugun gauza bera egin dugu irudiekin ere. Pelikula honetako gidoia idatzi nuenetik ikusi nuen hemen bidai bat zegoela, bidai emozional eta fisikoa. Pelikula grabatu aurretik sekulako lana egin genuen. Javi Agirre argazki zuzendaria eta Zaloe Ziluaga arte zuzendaria izan ditut alboan, eta hasieratik ge-neukan argi koloreak inportantzia itze-la zeukala. Trantsizioa dago, kontraste

handiko pelikula da.

Hasten da nazionalak herrira iristen diren horretan, eta hori oso gogorra eta iluna da. Bat-batean, Frantzian argi pixka bat sartzen da leihotik eta koloreak aldatzen joaten dira; batetik, Frantziak baduelako kolore paleta berezi bat; eta, bestetik, argitasun momentua islatu nahi genuelako. Venezuelan, kolore leherketa: kolore asko, jantzi dotore eta koloretsuak, artea ere horrelakoa zen. Eta gero berriro gris, urdin eta beltzera buelta, Euskal Herrira itzulitakoan. Hori dena oso estu-diatua dago, eta izugarrizko lana da, baina oso polita.

“ ”

Ez nuen nahi pelikula Ondarroan kokatzea euskaragatik: oso polita da, baina gogorra egiten zait

Liburuetan oinarritutako pelikulek ez dute sekreturik: liburua irakurri duenak badaki zer gertatzen den. Sinopsia ez denean pelikulak eskaini dezakeen sorpresa handiena, zer indartu?

Horrek ez nau asko kezkatzen, liburuan oinarrituta egonda ere bakoitzak bere narrazioa egiten duelako. Kirmenek libu-



rua nobelatua idatzi du, badu fikzio puntu bat; eta nik nire pelikula egin dut. Zein den sekretua? Narrazioa ondo eramatea, hori izan da pelikula honen erronka handiena. Zenbat abentura, ekintza, egoera... dauden Karmele eta Txominen istorioan Kirmenek jaso zituenak. Nire lana izan da hori ahaztea eta pertsonaien bitartez bide bat kontatzea, beren barruko kezak, zalantzak, gatazka guzti horiek kontatzea. Nik nire pelikula egin dut.

Jendeak badaki zer gertatuko den, edo ez; nik gogoan dut pelikula nola kontatu pentsatzen hasi ginenean erabaki genuela gauza asko ez genituela kontatuko. Hasieran ez dakizu nola antolatuko duzun narrazioa, eta hori da gure arma eta horrekin jolasten dugu beti; jolasa baita, azken batean. Niri gustatzen zait istorioa idatzita dagoenean, hori nola kontatu asmatzea; zailena da, baina aldi berean, politena. Gakoa aurkitzen duzunean gozatu egiten duzu, denak ez duelako balio.

Kontentzio ariketa bat izan da pelikula hau egitea, elementu oso indartsuak zeudelako narrazioan. Gauza asko daude, eta denak ezin dira kontatu: Txominen anaia Ezkaban egon zen, gurasoek bizi izan zuten Bigarren Errepublikako iraultza, Karmeleren ama irakaslea zen, herriko emakume taldearen burua, Txomin espia lanak egiten... Horregatik, hasieratik erabaki behar duzu zer kontatu nahi duzun eta zeinen bitartez: eta nik erabaki nuen Karmelerekin aurrera egitea, eta horrela atera zait. Inork ez daki, pelikula ikusi ez badu, zer gertatuko den; seguru sorpresa asko eramango dituela. Dena ez kontatzeko hautua egin dugu; baita musikarekin ere, ez dagoelako musika azpimarratuta, dena da soila, elipsiekin kontatzen dugu asko. Karmelen zentratu nahi genuen, bere bidez kontatu, eta ez hainbeste abentura. Pena ematen dizu, noski, eta pentsatzen duzu “sekuentzia hura ze



polita izango litzateke”, baina aldentzen zara erabakitako pelikulatik. Erabaki bat hartu genuen, eta aurrera.

Liburutik gehien aldentzen dena, edo baten bati bekain bat altzaraziko diona da liburua Ondarroan gertatzen dela, baina pelikulan ez da herririk aipatzen; are, euskara bera ere Lea-Artibaikoa baino Debagoienakoa da, Karmeleren kasuan bederen. Zergatik?

Ez nuen nahi izan Ondarroan kokatu euskaratik. Ondarroako euskara oso polita da, berezia, nortasun handikoa; baina gogorra egiten zait. Egin genuen probatxo bat, baina ez zen atera. Horrelako nortasun handia duen euskara bat erabili behar baduzu, edo benetakoa

egiten duzu edo ez duzu egiten, ezin da erdibideko zerbait egin. Ez nuen nahi euskara batuan egin pelikula, nahi nuen pertsonaia guztiak, garrantzitsuenak bederen, bizkaitarrak izatea; horrela baitziren. Eta orduan, neure euskara erabiltzea erabaki nuen, bergararra. Ez pentsatu buelta asko eman nitzkionik erabakiari; horrela egin nuen eta kito. Karmelek Bergarako euskaraz hitz egingo zuen, Bizkaian kokatuko genuen herria, ez genuen esango Ondarroa dela; eta Sotak eta Letamendik, nola bilbotarrak ziren, beste euskara bat egingo zuten, eta kito. Eresoinakoa jendea eta erbestekoa bakoitza bere herrikoa da, eta beren hizkeran hitz egin dute. Ez genion horri buelta larregi eman, eta, aldi berean, oso polita iruditzen zait. ●

Nafarroako

Bertsolari Txapelketa
2025

Lehenengo fasea

Urriak 18, larunbata

IRURITA

17:30ean, Gizarte Bilgunean

www.bertsosarrerak.eus

Aratzakola Bertsolaria Laguntzailea

ARGIA


Amaia Elizagoien Varela
Endika Legarra Nuin
Josu Sanjurjo Alzuri
Julen Zelaieta Iriarte
Patxi Castillo Graciarena
Xabat Illarregi Marzol
Gai-jartzailea:
Ainhoa Larretxea Agirre




		3		4		5		
5	4		6		1	7	9	
9	1			5		6		3
				2				
			8		4			7
	7		3		5		6	
2				1			7	9
3	8	4	9		6		2	5
	9					4		6

5x5

1. Likido masa txikia.
2. Ardiaren ar.
3. Edo.
4. Sabela.
5. Aizu!



5X5:	8	6	3	7	4	9	5	1	2
TANTA	5	4	2	6	3	1	7	9	8
AHARI	6	3	5	1	2	7	9	8	4
NAHIZ	1	2	9	8	6	3	4	5	7
TRIPA	2	7	8	3	9	5	2	6	1
AIZAK	4	5	6	1	6	4	3	8	7
NAK	3	8	4	9	7	6	1	2	5
	7	9	1	6	5	8	2	4	3
	5	1	9	8	2	7	4	3	6





Hiri bat eta estimuluen karrusela

RODEO ETA DENA

NON: Bilboko Kafe Antzokian.

NOIZ: irailaren 18an.

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Bilbo, sargoria, udako azken ostegunez. Bihotz Sakratuaren plaza bete dute Palestinaren aldeko oihuek, enegarrenez. Kilometro pare bat harago, Mariaren Bihotza plazan, hamar bat polizia daude pertsona arrazializatu bakar baten inguruan, auskalo zer esaten edo exijitzen. Plaza horretara kontzertuak ikustera heldu berri gaude gu, jendez betetako terrazen artetik. Ordubete lehenago, hirira manifestara eta kontzertuetara joaten garen jende klase hori elkartu gara herrian. Inguruko musika taldeak ikusteko plana dugu gaur: Sarean-en lehenengo eta Kafe Antzokian gero. Bakarren batek Antzokira egin du zuzen, Kutxa Beltzan aurretik beste kontzertu bat ere baitzegoen.

Afterpost kolektibo autogestionatuak

ikasturteko lehenengo kontzertuak an-tolatu ditu eta jendez lepo dago espazioa. Haatik-en *post-hardcorea* eta Zikinen punka. Trabakua, Lekeitio. Oihu urratu poetikoagoetatik, oihu urratu zuzenetara. *Eixu Zeuk*, anaitasuna eta *Fuck Israel*. Amaitzear zela, Google Maps eskuan, korrika txikian egin ditut San Frantzisko kaletik Albia lorategirainokoak. Heldu naiz, izerditan baina garaiz, hiriaren abiadura zentzugabea jada barruan sartuta.

Bigarren fasea: Antzokian jendea tantaka, zestoarren *stoner* doinuak hastean. *X* lana aurkezten ari da Rodeo, hamar-kada bateko ibilbidearen kariatara. Ostean jo duen Dena talde ondarrutarra ere *Anabasa* lanaren aurkezpen biran dabil. Elkarketa polita iruditu zait, elkar

ukitu eta nahasten direlako bi taldeen soinuak, baina batez ere, nondik eta zertarako kantatzea dutelako sormenerako lokatz komun: herri txikietako gazteriarren errealitatea(k), eguneroko borroka txiki zein handiak, galderak, zauriak. Eta Israel suntsitu.

Egunerokoan herritik hirira joan-eto-rrian nabilelako izango da agian. Baina gaurkoa lako egunetan, sentimendu kontraesankorrak pizten dira nigan. Gozatu ditut kontzertuak, baina, benetan, *ze nezesidade* etengabeko estimuluen karrusel honetarako. Herriko baretasunera bueltatzeko gogo-bulkada hazten zait horrelakoetan; faltan hartzen ditut gaue-tako kale eta agenda hutsak. Gehiegizko hustasunak nazkatu eta berriz hiri-tako planak bilatzen hasten naizenera arte. ●



LIBURUA

Gorputzak dio



DANI BLANCO/ARGIA CC-BY-SA

KONTRA
ANE ZUBELDIA MAGRIÑÁ
SUSA, 2025

MADDI GALDOS ARETA

Hatz-mamiekin jarraituta irakurtzeko azalerak bildu ditu Ane Zubeldia Magriñák bere lehen poema bilduman: ur gainak, zuhaitz larrutuak, oin zolak, ertzik gabeko harriak, muga zurrun edo hauskorrak eta esku ahurrak irakur daitezke, besteak beste, *Kontra* liburuan. Orain arte itzulpengintzan eta hitz esaneko Mejillon Tigre kolektiboan aritzeagatik izan da ezagun, besteren artean, hondarribiarra; eta orain grabitateari men egin eta *“gorputz dugun / mundu / txiki / hau”* aditzeko gonbita ederra ondu du 46 olerkiokin.

Izan ere, ukitzea galdegiten ei du kontra egoteak, eta azalak zedarritutako gorpuztasuna, ukitzeak. Gauzak horrela, atentzioa ematen du gorputzek, beren geruzek, adierazpideek eta mugimenduek

bilduman duten lekuak; preseski, gorputz idatzi soilak izatetik harago, gorputzak berak idatzitako poemak baitira bertakoak, gorputzari nolabaiteko ahotsa ematen diotenak.

Kontaktua eta keinuak aletzen ditu poetak, horretarako muturretan kokatu ohi ditugun baina uste baino gertuago direnak baliatuta: hitza eta isiltasuna, mugimendua eta geldotasuna. *Ni* poetikoa barnearen eta kanpoaren arteko muga lausoan kokatu eta biak bereizezin balira legeazaltzen dira, *Smalldance II* poemak argiki azaltzen duen moduan: *“begiak ixten badituz / dena dago nire barruan”*. Horretarako darabilen paisaia poetikoan gailen dira urak eta lurrak, eta deigarria da aldaketa zein denboraren joana adierazteko darabilen era, grabitateari, frik-

zioari, sedimentazioari eta naturan zein gorputzetan gertatzen diren bestetzuei egindako erreferentziak tarteko.

Aipatutako ahots hori lortzeko errepikapenak, bereizi gabe idatziriko hitzak (*“odoladurzorne”*) zein apropos urrundutakoak eta onomatopeiak darabiltza, besteak beste, Zubeldiak, eta adierazgarri dira testuaren barruan txertatutako testuak: beste batzuei entzundakoak topa genitzake, baita poema bat ere poema baten barruan.

“Hizkuntza guztiak ulertzeko zorian / banengo bezala sentitzen naiz hemen / isiltasunetik gertu” diosku, hizkuntza guztiak hitzezkoak ez direla gaineratuta. Horrekin, irakurtzetik harago jo eta zentzumen oro baliatuta leitzeko aukera da *Kontra*. ●



MUSIKA

Haizeari entzunaz



XALBA RAMIREZ

Aresti hilda dago. Eta bere oinordekotza baita ere. Gailuk argi du: “Harrizko herri zena / negar herri bihurtu da eta, / hala, iduri luke bizitzak zerbait zor digula: / Zoriontasuna akaso? Ba ez!”. Mejillón Tigrek hitz esana gisa definitu zuen *spoken word*-a, Euskal Herrian tradizio luze baino ezezaguna duen ahots gorako poesiari marko berria eskainita.

Joxean Artze izan zen aitzindaria – oker ez banago –, eta jarraitu dute urteetan zehar hainbatek. Horietako bat da Andoaindik datorren Gailu. Idatzi dugu jada haiei buruz lehendik, euskaratik gertuen den Gil Scott-Heronen estiloa

garatu dutela Gailukoek, *rural electro-hardcore*-a jorratuz.

Azken lan honetan, letrekin nabil ni adiago. Esango nuke, jada ofizialki, Gailuk hanka berri bat gehitu diola proiektuari: Asier Aizpurua Aranguren. DJ moduan, K Ttipia gisa ezagutuko dute batzuk, Axi Bukows gisa besteeak. Lehendik ere idatzi ditu letrak Gailurentzat. Oraingoan, jada, zortzi kantutatik bosten letrak dira bereak. Eta unibertso propioaren sortzailea.

Neoliberalismoaren arrakalak bizitzen ohituta dagoen belaunaldiaren hitzak dira. Sistemak inolaz ere irentsi ezin dezakeen jarrera baten militanteak. Kritikatzeko dute “negar herria”, baina, hain zuzen, aldarrika-



BIZI ETA IXO!

GAILU

BIDEHUTS, 2025

tzeko maitasuna ekintza zuzen gisa: “Baina oroit maitasuna ezin dela eduki, eman baino ez. / Ekintza zuzena da. Horrexegatik ezin da eduki, ez erosi. Oparitu baino ez”.

Eta horrelaxe, komunitatearen zentzu sakon, errotu eta garaikide batean, garaia kontrako aldarria da *Bizi eta Ixo!* Ez dago autolaguntzarik, bizitzaren garrantzian, borrokarako deia baizik. Nondik datorren oso ondo dakien belaunaldiari entzun diezaiokegu nora joan oso ondo ez dakigunok: “Bizi besterik gabe, bizi sinpleki, / haizeari entzunaz, / haizeak nondik, haizeak nondik jotzen duen hadi / nondik joko haizeak, Jeronimo gurekin zutik / Jeronimo gerrarako haizatuz lurpeko aizkora”. ●

Datuak ditugu!

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ezagutuko duzue noski *The Onion* egunkari digital satirikoa. Grazia egin zidan titularra ekarri zuen aurreko batean: “Pertsona izatea gorroto duen tipo batek potentzial handia ikusten du Adimen Artifizialean”. Tipo horren adierazpenak ere bazekartzan artikuluak, nahiko errealistak portzieto –“Oraindik hasierako fasean dagoen arren, Adimen Artifizialak egunen batean egingo ditu pertsonak egitea ere amesten ez zituzten gauzak”–, baita haren deskribapena ere –“itxura guztien arabera, ez du inoiz bere burua behartu zaila iruditu zaion ezer egitera; ez du inoiz ezer benetan originala sortu; eta, sakon-sakonean, gauzak benetan on, gustagarri edo mesedegarri zerk egiten dituen ulertzeko zero gaitasun dauka”. Gure garaiko norbait, dudarik gabe.

Bueno, ba txiste asko, iji eta aja, nahi duzuen, baina *The Onion*-eko tipo hori medikuntza-alorreko ikerketak publikatzen ari da oraintxe bertan. Irailean *Nature* aldizkariak argitaratu zuenez –*Natu-*

re e, ojo: *The Onion*-ek ez bezala, broma gutxiren zalea izateko fama dauka; hori baieztatu ahal izateko zein iturri erabili dudan ere galdezka hasi ez zait ba–, tira, *Nature*-n arabera beraz, osasun-arloko ikerketetan “datu sintetikoak” agertzen hasiak dira: benetako pertsonen informazio medikoarekin Adimen Artifizialeko modeloak entrenatu ondoren, trasteak bere datu propioak ekoizten ditu, estatistikak atera eta abar.

Eta dena dira abantailak, esan beharrik ez dago. Mota horretako ikerketak benetako pertsona gogaikarriekin egin behar direnean, batzorde etiko aspergarri batek gainbegiratu behar izaten du prozesua, ziurtatzeko parte hartzen dutenen esku-bideak, segurtasuna, duintasuna eta beste kontu *woke* horiek guztiak errespetatzen direla. Ezin zaizkiola jendeari datu medikoak Netanyahu estiloan erauzi, alegia. Baina horrek, klaro, asko murrizten du publikazio zientifikoak zakukadaka argitaratzeko aukera. Eta ikerlari bat ezagutzen duen pertsona orok dakien moduan,

espezie horrek bizirauteko publikazioak behar ditu –ura, bitaminak, proteinak eta beste txorrada horiek gero datoz–.

Horraio iritsita “datu sintetikoak” asuntu honek dagoeneko problema etiko, epistemologiko eta bainazeostiata-narigarazibilizaziobezalalogiko gutxi ez baldin bazeuzkan, bokatarekin botaka egin ez bazenuen, hurrengo pausoa da botakarekin bokata egitea. Izan ere, “datu sintetikoak” beste erabilpen bat honakoa baita: medikuntzako Adimen Artifizialeko modeloak entrenatzea. Alegia: makina batek, benetako datu kopuru oso-oso txiki batetik abiatuta, datu kopuru ikaragarria asmatzen, barka, sintetikoki produzitzen du; eta handimen artifizial horrek errun dituen datuak erabiltzen ditu bigarren modelo batek, zure medikuari zero koman esateko zein den diagnostikoa eta ze tratamenduk funtzionatuko duen.

Handik aste batzuetara izorramenditik jaitsi ez zarelako berriz bisitatzen duzue, zeozor ez dabilela ondo esaten diotzuean, bekaina altxako dizu agian. “Aizu, Adimen Artifizialak egin du diagnostikoa, *datu pila bat* gurutzatuta funtzionatzen du, ezin du hutsik egin”.

Gauza onak ere ikusten dizkiot kontu honi, ez pentsa. Agian balioko digu, eskainiko diguten tratamenduak pixka bat Tuterarat uzten ez bagaitu behintzat, Adimen Artifizialaren rollo guztia auzitan jartzeko. Eta, behin hasita, denboraldiaren lehen kapitulua izan zen Big Dataren rollo guztia ere bai. Motz ez geratzeko, serie guztiari begiratzea ere komeni da, dena den: “datuak”, orokorrean, dira problema. Filosofia zientifiko positibistaren arropekin jantzita etorri zen munduaren ulerkerari hori geroz eta argiago erakusten ari da xedea ez dela benetako mundua hartu eta abstrakzio numeriko batean egituratzea. “Datu sintetikoek” alderantzizkoa egiten dute: abstrakzio numeriko batetik abiatuta, benetako mundua egituratu. ●



ARGIAk Bizi Baratzea sailean liburu berria kaleratu du:

BIZITZA BATEN TXATALAK

Andre bat lurrari emana

Onintza Enbeitak idatzia da.
Feli Madariagaren bizipenak
jaso ditu, eta horrekin batera
“baserriko bizimodua,
erromantizismorik gabe”.



15€

ARGIA EGUTEGIA 2026

Historia ahazten duen herriak bere akatsak errepikatzeko arriskua du, esan ohi denez. Baina baita, ongi egindakoak ere. Izan ere, etorkizunez kargatutako arma da historia.

Aurten ere, egunero efemeride bat.

12€
Egutegia

40€ Euskarria

47€
Egutegia +
Pago-egurrezko
euskarria

azoka.argia.eus
(+34) 943 37 15 45

ARGIA EGUTEGIA
2026
Egunero efemeride bat

ARGIA 2026
APRILIA
11 LARUNBATA

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€tik gorako erosketetan
Lasarte-Oriako egoitza irekita dugu 8:00etatik 15:00etara